

Euskararen erabilera administrazioan. Euskararen erabileran laguntzeko unitate/modulo didaktikoak: Amurrioko Udala.

Irabien Marigorta, Iosune

Hiznet 02/03

Gasteiz, 2003ko iraila

AURKIBIDEA

Aurkibidea.....	1
Sarrerra.....	2
1.- Marko teorikoa: testuinguru juridikoa eta euskararen erabilera administrazioan.....	3
2.- Udalaren egoera	
Udalerrria.....	6
Udala. Osaketa eta administrazio atalak. Agintarien Hizkuntza-gaitasuna.....	8
Euskararen normalizazioan eginiko bidea.....	11
3.- Helburuak eta metodologia.....	14
4.- Datuen azterketa.....	17
5.- Ondoriak.....	20
6.- Ekintzak eta Proposamena: Unitate idaktikoak.....	24
Idazkari laguntzailea.....	26
Erregistro-administrari laguntzailea.....	34
Liburuzaina.....	45
Eranskinak	
1.- Elkarrizketa.....	53
2.- Elkarrizketaren gidoia.....	61
3.- Herritar batekin zuzenezko elkarrizketa baten transkripzioa.....	62
4.- Telefonoaren bidez izandako elkarrizketa baten transkripzioa....	63
5.- ETBko bideo pasarte baten transkripzioa	64
Bibliografia.....	71

Sarrera

Hizkuntza Plangintzarako Unibertsitate Ikastaroaren bigarren edizioa osatu da ikasturte honetan (2002-2003). HIZNET izeneko urrutiko ikastaroa prestatu dute Eusko Irakaskuntzaren Asmoz fundazioak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Soziologia (2) Sailak.

Ikastaro honek sakontze egitasmoa egitea eskatzen du eta ikasleek lan hori burutu behar dute. Egitasmoa osatu da eta administrazio-arlokoari buruzko lana da hau. Toki Administrazioiko euskara-planen gainekoa hain zuzen ere.

Herri-administrazioaren garrantzia herritarrekiko hurbiltasunean datza. Eta hizkuntza da komunikazioa egiteko tresna erabilgarria. Euskararen erabilera arautzea behar-beharrezkoa da Legeak markatzen dituen herritarren eskubideak bermatu ahal izateko.

Euskararen erabilera normalizatzeko antolaketa arloan, bi lege garatu dira: 24ko 10/1992 Oinarrizko Legeak, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989.

Administrazioan euskararen erabilera zein izan behar den hobeto ulertzeko batetik, arauak dioena ikusiko dugu eta bestetik, administrazioan euskararen erabilera zerbitzu hizkuntzaren eta lan hizkuntzaren arteko aldea eta definizioa aztertuko ditugu.

Marko juridikoa eta definizioak ikusita, gure lanaren kontestu fisikoan kokatuko dugu. Amurrion (Araba) izango gara lanean. Horretarako udalerraren euskararen presentziari begiratuko diogu. Halaber, udalaren osaketa, agintarien hizkuntza gaitasuna eta euskararen normalizazioan bertan eginiko bidea birpasatuko ditugu.

Lan hau osatuko da, baina aldez aurretiko helburuak zehaztuko ditugu. Horiek orokorrak zein zehatzak izango dira. Lanaren mamian egoera baten azterketa (euskararen erabilera) eta egoera hori hobetzeko proposamenak agertuko dira.

Metodologoari dagokionez, ikusketa kualitatiboa bilatzen den neurrian, lan honen datuen bilketan teknika kualitatiboa bilatu da. Hainbat datu izango dira langai eta datu horien azterketa osatzeko Udaleko langile esanguratsuekin lan egingo da. Datuak eskuan, Udalean euskararen erabilera zein den ondorioztatuko dugu. Ondorioak lagungarri izango dira behar bezalako proposamenak egiteko. Proposamenak unitate didaktikoak izango dira langileek eguneroko lanean euskara gehiagotan erabili ahal izateko. Zuzentze lan honetan helburuak zehaztuko ditugu eta ariketa batzuen bidez, konponketak proposatuko ditugu.

1.- Marko teorikoa: testuinguru juridikoa eta euskararen erabilera administrazioan

Testuinguru juridikoa

Euskararen papera garrantzitsua da Administrazioan. Eginbeharrak oraindik asko badira ere, Eusko Jaurlaritzak arautze-lanak eginda ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko antolaketaren arloan.

Batetik, 10/1982 oinarriko Legea, euskararen erabilpena arautzen duena. Lege honek herritarren eskubideak aitortzen ditu. Halaber, herri-agintek hizkuntzaren arlorrean bete behar dituzten betebeharrak ezartzen ditu. Legeak dio herritarrei administrazioarekiko harremanetan euskararen erabilera bermatuko zaiela, hala eskatuz gero. Bermatze horrek administrazioaren zerbitzupeko pertsonala arian-arian euskalduntzea eskatzen du. Halaber, Euskal Administrazioetan bi hizkuntza ofizialen ezagutza derrigorrezkoa duten lanpostuak finkatu egin beharko dira.

Gerorago, 1989an, Euskal Funtzio Publikoaren Legeak administrazio elebiduna eraikitzeko hizkuntza plangintzarako oinarriak ezarri zituen. Funtzio Publiko sisteman hainbat neurri sartzen dira hizkuntza bietako edozeinetan jarduteko gai diren funtzionarioak lortzeko. Benetako normalizazioa lortu nahi da, unean-unean hartutako erabakiak alde batera utziz. Horretarako, langileek bete beharreko baldintzak definitzen ditu. Definitze horretan bi tresna ezarri zituen: Hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun data.

24/1986 Dekretuak bi kontzeptu horiek osatu zituen eta horretarako, derrigorrean bete behar zuen indizea arautu zuen, hau da, derrigortasun data izan behar zuen langileen kopurua.

Bestelako arauzko xedapenak ere eman ziren euskararen erabilera normalizatzeko (250/1986 eta 224/1989 dekretuak)

Bitartean, Lehenengo plangintza (1990-1995) abian jarri zen. Horren helburu nagusia administrazioaren giza-bitartekoak bi hizkuntza ofizialetan aritzeko gaitzea izan zen. Hizkuntza Politikarako Sailburordetzak, plangintza osatu zenean, ebaluzio-txostena prestatu zuen. Horretan hurrengo plangintzaldian aplikatu zitezkeen neurriak Eusko Jaurlaritzak 86/1997 Dekretuan ezarri zituen.

Dekretu honek Lehenengo plangintza amaitu zenean, elementu berriak erantsi zituen. Gainera, euskararen erabilera normalizatzeko plangintza antolatzerakoan Eusko Jaurlaritzak eginiko Dekretuetan agertzen ziren xedapenak bildu zituen. Oraingo honetan bigarren plangintzarako ezarpen – eremua administrazioek eurek barne-erabilera arautzeko egiten dituzten plangintzetara mugatzen du. Eta plan horiek garatu beharreko egiturak, gutxieneko edukiak eta arloak zehazten ditu.

Euskararen erabilera normalizatzeko gutxieneko helburuak ezarri ziren. Dekretuaren ezarpen-esparruan zeuden erakundeetako bakoitzak zegozkion gutxieneko helburu horiek lortu behar ditu derrigorrez bete beharreko indizeak ahalbidetzen dion neurrian. : Derrigorrez bete beharreko indize-tarteak bereizten ditu. Hauxek dira: %0-%25; %25-%45, %45-%70 eta %70-%100 bitartekoa. Amurrioren kasuan , %30,17koa da.¹

Dekretu honek administrazio-atalak sailkatzen ditu bere zereginak zein hizkuntzatan betetzen dituen kontuan hartuz: Atal elebidunak eta euskarazko administrazio-atalak.

Izaeraren arabera ere definitzen ditu administrazio atalak. Alegia: Jendeaurrekoak, gizarte-mailakoak, atal orokorrak eta atal bereziak.

Horrez gain, euskararen erabilera normalizatzeko planetan agertu beharreko gutxieneko nondik norakoak eta jarrabide nagusiak ezartzen ditu.²

Dekretu hau bereziki garrantzitsua da, orain indarrean daukaguna baita. II. Plangintza osatzen denean, dekretu berria osatuko da

Hizkuntza administrazioan. Zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza.

Lehenengo plangintzaldian langileen hizkuntza prestakuntza izan zen helburua, baina bigarrenean atalaren mailara pasatuko da eta euskararen erabilera izango da helburua. Ezaugarri jakineko atal batzuetan euskara zerbitzu edo lan-hizkuntza izateko aukera emango zaie.³

Izan ere, herritarrei zerbitzua emateko hizkuntza izan behar du, atal mota guztietan administrazioak herritarrekin dituen harreman-mota guztietan bermatu behar da euskararen erabilera, ahozko eta aurrez aurreko harremanetan, telefono bidezkoetan, bozgoragailua erabiltzen denetan, idatzizkoan eta bai tresna elektronikoen bidez gertatzen diren ere (internet, fax, posta elektronikoa eta abarretan)

Zerbitzu hizkuntza egokia izan dadin hobeto ulertu behar dugu zer den ahozko harremana eta idatzizkoa eta bi harreman mota hauetan ulertzen dena. Adibide bezala ikus dezagun 2. Helburu mailakaturik batetzea dagokion Eusko Jaurlaritzak eginiko

¹ 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa. 17.atala.

“ aurreko atalerako azaldutako helburuaz gainera, administrazio-atal elebidunak jarriko dira eta gizarte izaerako ataletan ere. Pixkanaka, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak egingo dira maila orokorreko ataletan ere”

² 18.atala. 86/1997 DEKRETUA, apirilaren 15ekoa.

³ - Zerbitzu-hizkuntza: lanpostu bati dagozkion zereginak betetzerakoan administratuekin ahozko zein idatzizko harremanak izan behar direnean, harreman hauetan erabiltzen den hizkuntza.

- Lan-hizkuntza. Lanpostu bati dagozkion zereginak betetzerakoan, bertan erabiltzen den hizkuntza horixe izango da lan-hizkuntza.

Planean⁴ hizkuntzen erabilerarako ematen dituen jarraibideak: Ahozko zein idatzizko harremanek zein hizkuntzatan izan beharko duten definitzen ditu 6.2.1. artikuluan:

- Ahozko harremanetan.

1.- Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak (erantzungailu automatikoz, bozgailuz, telefonoz eta abarrez emanikoak) euskaraz eta gaztelaniaz emango dira esandako ordena berean.

2.- Euskara dakien langilea euskaraz zuzenduko zaio herritarrari, eta gero administratuak hautatutako hizkuntza ofizialean jarraituko du. Langileak jakin ez, eta herritarra euskaraz zuzentzen bazaio, langile elebidun bati eskatuko dio laguntza.

- Idatzizko harremanetan

1.- Herritarrei zuzendutako dokumentazio euskaraz eta gaztelaniaz egongo da, herritarrak espreski euskararen edo gaztelaniaren aldeko aukera egiten ez badu. Izan ere, herritarrak Administrazio honetara zuzentzerakoan erabilitako hizkuntza da erantzunean erabiliko dena.

2.- Espediente edo prozedura administratiboan pertsona batek baino gehiagok parte hartzen duenenan eta espediente edo prozeduraren hizkuntzaren gainean adostasunik ez egotean, espediente edo prozeduran bultzatu due pertsonak hautatutako hizkuntza erabiliko da, beti ere, beste parteei prozeduraren jarduketan itzulpena emango zaiela bermatuz.

Marko teoriko honek erraztu nahi digu euskararen erabileraren definizioa, geroago herrian martxan jarri nahi den plangintzaren ezaugarriak hobeto ulertzeko. Baina, ikus dezagun zein diren herriaren ezaugarriak.

⁴ 21/1998 ERABAKIA, urriaren 27koa.

2.- Udalaren egoera

2.1.- Udalerria

Amurrio Arabako Aiaraldean kokaturik dago eta 1996ko erroldaren arabera guztira 9.758 biztanle ditu. Herri nagusiak eta 9 herrixkak osatzen dute udalerria. Amurriok 9 administrazio batzorde ditu (Aloria, Artomaña, Baranbio, Delika, Larrinbe, Lekamaña, Lezama, Saratxo eta Tertanga). Hauetan biztanleria oso txikia da eta modu honetan banatzen da:

Administrazio batzordea	Gutzizkoa
Aloria	29
Artomañana	72
Baranbio	180
Delika	173
Larrinbe	280
Lekamaña	30
Lezama	279
Saratxo	100
Tertanga	92
Batzordeetako guztizkoa	1.235 + 8.523 (Amurrio) = 9.758

Inguruko herrien osaketa antzekoa da eta lan jardueran, euskararen, gizarte-banaketan eta abarretan ez dago alde handirik. Izan ere, herri txikiak biztanleek bizitza Amurrioko erdigunean egiten dute (zerbitzuak eta industria).

Aiaraldean herri batzuek osatzen dute eskualdea: Aiara udalerria (24 herriz osatutako udala), Artzeniega, Okondo, Laudio eta Amurrio.


Oro har, euskaldunen portzentaia oso antzekoa izan da betidanik hauetan guztietan eta inguruan geratzen den Bizkaiko herri bakarrean (Orduña-Urduña) berdin gertatzen da. Udalerri hau Bizkaian badago ere, Arabak inguratzen du muga guztietan eta euskararen gaineko politikak diseinatzeko unean normalean ez du funtzionatzen Aiara Eskualdekoekin batera. (Arabako Aldundiaren euskararen gaineko lana eta Bizkaikoa erabat desberdina den adibidea)

Amurrioren kasuan eta Udaleko datuak eskuan, esan genezake euskaldunen kopurua gorantz joan dela azken hamabost urteotan . 1981ean % 2,53 zen euskaldunen portzentaia eta hamabost urte geroago %19,61era igo da.⁵

⁵ II. Mapa soziolinguistikoaren datuak

	1981	1986	1991	1996
Biztanleria	8.741	9.201	9.558	9.598
Euskaldunak	222	661	1.145	1.883
Kopurua eta Portzentaia	%2,53	%7,18	%11,97	%19,61
Ia-Euskaldunak	551	1.969	1.915	2.025
Kopurua eta Portzentaia	%6,30	%21,39	%20,03	%21,09
Erdaldunak	7.968	6.571	6.498	5.690
Kopurua eta portzentaia	%91,15	%71,41	%67,41	%59,28

Honen grafikoa:



Erabilerari dagokionez, aldiz, hainbat gauza esan dezakegu:

- Erabilera ezagupena baino txikiagoa da.
- Euskaldunberriak eta partzialki euskaldunberrien artean oso kopuru handia euskaldun pasiboak dira.
- Euskararen ezagupena ez da etxeko erabilera islatzen. Etxean gaztelania da nagusi.
- Euskara sustatzeko ekitaldi kulturak egin arren, kalean ez da oraindik ezagupenaren neurri berean ikusten.

Hori guztia hobeto ulertzeko, kontestua kontuan hartu behar dugu. 90eko hamarkadan euskararekiko jarrera aldatu zen batez ere Hego Euskal Herrian. D eredu nagusitu zen eta horretan gurasoen erabakiak asko lagundu zuen. Jarrera horrek

herritarren gaitasun maila eta erabilera hurbiltzen lagundu beharko luke, baina une honetan seme-alabek euskaraz ikasi arren, kalean bestelako egoera ikusten dugu egunero.

Hori guztia kontuan izanda, Amurrioko Udalean ere euskararen erabilera aparteko garrantzia izan behar duela begi bistan dago. Eta hasteko, ardura berezia izan behar du herritarren hizkuntza eskubideak bermatu ahal izateko. Horretarako 86/1997 Dekretuak emaniko “derrigortasun indizea” lagungarria den aurrerapausua da. Datu hauekin, Amurrioko dagokion indizea (1996ko erroldaren arabera) 30,17koa da (euskaldunak + elebidun hartzaileak / 2). Eta indize honek udaleko barneko euskara ziurtatu eta arautu beharko du, behar bezalako zerbitzu egokia herritarrei eskaintzeko eta euskararen gaineko araudia betetzeko.

2.2.- Udala

2.2.1.- Osaketa eta administrazio-atalak

Amurrioko Udala 53 lanpostuz osatuta dago. 1996ko derrigortasun indizearen arabera, 16 lanposturi dagokie derrigortasun data ezartzea. Hori egindakoan, honako banaketa geratu da:

Derrigortasun HE	Guztira	Egiaztatua	Ez daukatenak	Lanpostu hutsak	Adinagatik salbuetsiak
1 HE	0	0	0	0	0
2 HE	8	4	2	3	1
3 HE	8	4	2	3	0
4 HE	0	0	0	0	0
Guztira	16	8	5	6	0


Beste datu bat ere adierazgarria da. Langile batzuek euren lanpostuek duena baino maila altuagoa daukate. 8 lanpostutan langileak lanpostu horrek duen hizkuntza eskakizuna baino bat gehiago daukate. Hona hemen hizkuntza eskakizunaren arabera banaketa. (*)

HE	Langileen kopurua
1 HE	3
2 HE	1
3 HE	4
4 HE	0
Guztira	8


(*) Lanpostu hauek oro har azkenengo lan-deialdietan osatu dira.

Ikus dezagun datuen azterketa beste modu batean:

Egiaztatzearen kopurua (derrigorrezko data duten lanpostuetan)



Egiaztatzearen kopurua (derrigorrezko data ez duten lanpostuetan)



Udaleko lanpostu horiek guztiak atal desberdinetan banatzen dira. Bost atal dira horiek eta modu grafiko batean ikus dezakegu gehienbat zerbitzu orokorrak, komunitatea eta hirigintzan daudela (25) eta atal horretan bertan da hizkuntza eskakizuna egiaztatze-portzentaiarik altuena (egiaztatu duten 19tik 14 atal honetakoak dira). Azaldu behar da Zerbitzu Orokorrak oso administrazio sail handia dela. Atal honetan izaera desberdineko lanpostuak jasotzen dira (gizarte izaera, izaera orokorra, eta jendeurreko lanpostuak). Hori kontuan izan behar dugu atalen taula ikusten dugun momentuan.

Atalen osaketa eta derrigortasun-datak ikusiko ditugu beste grafiko honetan:

	Lanpostuak	Derrigortasun-data atalka	Egiaztatuta			
			1	2	3	4
• Alkatetza eta gobernua	2	2	0	0	0	0
• Zerbitzu orokorrak. Komunit. Hirigintza	25	11	1	5	8	0
• Zerbitzu ekonomikoak	5	2	1	1	0	0
• Lanak. Zerbitzuak. Mendiak	16	0	2	0	1	0
• Udaltzaingoa	5	0	0	0	0	0
Guztira	53	15	4	6	9	0

Datu hauek aurtengoak dira, baina ziur aski lanpostuaren ezaugarriak aldatuz doazen neurrian, datozen hilotan kopuruak desberdinak izango dira. Desberdintasun horretan ere batetik, hizkuntza eskakizuna egiaztatuta eta bestetik, derrigortasun data duten langileen kopurua gorantz joango da. Izan ere, lehiaketetan jendearen prestakuntza gero eta handiagoa da eta euskararen ezagutza ere neurri berean igotzen da.

2.2.2- Agintarien hizkuntza-gaitasuna

Gain-gainetik bada ere, aipatu nahiko genuke udaleko agintarien hizkuntza-gaitasuna . Baztorde desberdinez osatzen da eta azaletik bederen ikus dezakegu zer nolako funtzionamendua duen euskararen erabilerari begira.

10 batzorde daude eta 13 zinegotzik osatzen dute Udalaren egitura politikoa. Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, hauxe adieraz dezakegu:⁶

- Ulermen maila. 4k hitz batzuk ulertzen dituzte, 4k zertxobait eta 4k ongi eta batek ezer ez.
- Mintzamena. 5k ez dute ezer hitz egiten, 3k hitz batzuk, batek zertxobait, batek nahikoa ongi eta hiruk ongi.
- Irakurri. 5k ezer ez, batek hitz batzuk, 3k zertxobait eta 4k ongi irakurtzen dute.
- Idazmena. 5k ezer ez, 4k hitz batzuk eta 4k ongi.

⁶ Erabilera Planaren Bideragarritasun Txostena . Amurrio. 2002-06-24

Batzordeak honako hauek dira : Gobernu batzordea; Ogasun eta aurrekontu batzordea; Hirigintza; Lan eta zerbitzu batzordea; Langileria batzordea; nekazaritza, abelazkuntza, mendi, ingurumen eta administrazio-batzarren batzordea; hezkuntza, gazteria eta berdintasun batzordea; euskara batzordea, kultura batzordea eta kirol eta jai batzordea.

Horiek dira batzordeak, eta euskararen erabilerari buruz datu batzuk eman ditzakegu, hizkuntza-gaitasunaren gaineko datuak ikusita:

- Batzorde gehienetan eta euskararen erabilerari dagokionez, gaztelania da nagusi (ahozko eta idatzizko harremanetan)
- Partaideen euskararen ezagutza batzorde guztietan oso baxua da.
- Batzorde bakar batean euskara gaztelania baino gehiagotan erabiltzen da: Euskara Batzordean.
- Batzorde guztietan partaideen ezagutze-maila erabat desberdina da.
- Oro har, batzorde “ teknikoetan” euskara gutxiagotan erabiltzen da. Eta gizarte arlokoetan gehiagotan (kultura, euskara...)

Ondorioetan argi ikusten da euskara zenbateraino erabiltzen den. Politikarien hizkuntza-gaitasunak markatzen du, zalantzarik gabe hizkuntza-aukeraketa. Berez, puntu adierazgarria da, zeren eta kontuan izan behar baitugu batzordeetan udaleko zirkuito bat hasten dela. Hau da, batzordeetatik ateratzen den auzien hizkuntza, gehienetan udal osoan hedatuko da (espedienteak, erabakiak eta abar)

2.2.3.- Euskararen normalizazioan eginiko bidea

Amurrion azkenengo urte hauetan euskarari lagundu nahi izan zaio Udaleko funtzionamendua ere arautzen euskararen presentzia bermatzeko. Hemen oso modu grafikoan ikusiko dugu Amurrion normalizazio alorrean eman diren urratsak. Modu kronologikoan egingo dugu.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko plangintzak

- **I. Plangintzaldia.** (1990-1995) Abian jarri zen, bertako langileen hizkuntza eskakizun-datak ezarri ziren, zenbait derrigortasun-data finkatu ziren... Hori guztia, 24/1989 Dekretuak aipatzen zuenaren arabera. Dekretu honetan, bete beharreko indizea osatu zuen eta indize honek derrigortasun-data izan beharreko langileen kopurua azaltzen zuen. Erroldaren arabera erakundearen lurralde-eremuan ziren euskaldunen kopuruen arteko lotura azaltzen zuen indizeak.

- **II. Euskararen Erabilera Normalizatzeko plangintza.** (1998-2002)

Plangintzaldi honetako oinarriak 86/1997 DEKRETUAN jasotzen dira. Gutxieneko beteberrak zehazten ditu⁷

Amurrion arian-ariko bidea egin zen eta erabilera planaren bideragarritasun txostena aurkeztu zen (2002-06-24). Txosten honetan besteak beste, ondorengo datuak agertzen ziren:

- Udalaren egoera soziolinguistikoa
- Erakundearen egoera soziolinguistikoa
- Hizkuntza normalizazioan egindako bidea eta dituen giza baliabideak.
- Atalen sailkapena, lehentasunak eta epeak.

Datu horien arabera eta 86/1997 Dekretuko 18.atalean jasotzen diren gutxieneko beteharren arabera, honako konpromezuak hartu ziren:

- Lehen plangintzaldian dagokien derrigorrezko hizkuntza eskakizuna egiaztatu ez zuten langileekin hartuko diren erabaki eta neurriak.
- Kontratazio arloan hartuko ziren neurriak, batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena zuten zerbitzu publikoak eskaintzen zituztenean, erakundeak berak bete beharko lituzkeen antzeko hizkuntza baldintzak berma zitezen.

Horrez gain, euskararen erabilera zehaztu eta gauzatzeko neurriak izendatzeko konpromezua hartu zen ondorengo esparruetan:

- Administratuekin eta gainerako erakundeekin izaten diren ahozko zein idatzizko harremanetan.
- Jendeaurreko ekitaldietan, argitalpen arloan, hizkuntza paisajea eta dagozkion hizkuntza helburuak betetzeko erakundeak ezartzen dituen gainerako jarduera esparruetan.

Lehentasunezko ataletan plana abian jartzeko kronograma osatu zen eta 2002ko uztailean hizkuntza plangintza berriaren aurkezpena egin zen. Planaren helburuak zehaztu ziren: Atala Elebidunak izendatzea eta erabilera mikroplanak izendatzea (14 lanpostu). Lanpostu hauetan udaleko jendeaurreko lanpostuak eta gizarte izaerakoez gain, izaera orokorreko lanpostu batzuk ere sartu dira mikroplanetan.

Hainbat neurri



1989ko martxoaren 28an hizkuntza irizpideak onartu ziren, bi hizkuntza ofizialak erabiliko ziren honako hauetan:

- Sarrera eta irteera erregistroan, informatikako programetan, kultur eta kirol talde batzuen publizitatean.

⁷ 86/1997 Dekretuak Euskara Planen gutxieneko edukiak (18. eta 19.atalak)

- Bandoak, jendearentzako iragarkiak eta komunikabideetara bidaltzen diren iragarkiak, barne errotulazioan eta udalerriko errotulazioan.

→

1999ko azaroaren 18an talde kulturek kartelak elebietan aurkeztu behar zituztela zehaztu zuen Udalak.

→

2001eko otsailean itzulpen zerbitzurako kanpoko enpresa bat kontratatu zen.

3.- Helburuak eta metodologia

Helburuak

Lanaren hasieratik hainbat daturen eta azterlanen berri izan dugu. Horietan guztietan euskararen erabileraren inguruko nondik norakoak ulertzen saiatu gara. Eta ildo horretatik jarraituz, lanaren helburuak formulatzen ditugu.

Helburu orokorrak

- a.- Amurrioko Udaleko lanpostu jakin batzuetan (3) euskararen erabileraren presentzia aztertzea.
- b.- Euskararen presentzia bermatzeko tresna eragingarri baten bideragarritasuna aztertzea.

Helburu zehatzak

- a.1.- Udaleko euskararen erabilera idatzia aztertzea.
- a.2.- Udaleko ahozko harremana aztertzea (barnekoa)
- a.2.- Udaleko langileen herritarrekiko ahozko harremana aztertzea.
- a.4.- Euskara behar bezala erabiltzeko oztopoak aztertzea.

Metodologia

Helburuak definitu ditugu jada. Helburuak egoera baten berri izatetik hasten dira. Egoera horiek identifikatu behar dira, ezagutzen ez baitira. Hori dela eta, ezin izango dugu inolako hipotesirik ekarri. Azterketa kualitatiboa-deskriptiboa egingo dugu. Horretarako, hau da, euskararen erabilera zein den ikusteko, elkarrizketa erdi-egitaratua erabiltzea erabaki da. Elkarrizketa baten definizioa, zertarako erabiltzen den ikertze-metodo hau, ondorengo lerroetan horren gaineko azalpena izango dugu.

Elkarrizketa definitu.

Egun, eta metodologiari buruz hitz egiten denean, metodologia kualitatiboa eta kuantitatiboa ditugu. Gure lanaren ezaugarriengatik ezin dugu datu kuantitatiboekin bakarrik lan egin. Nolabait, eguneroko bizimodua aztertuko nahi dugu eta horretarako, bizimodu hori eraikitzen duten gizarte esanahiak aztertu nahi ditugu. Hori da hurbilpen kualitatibo baten helburua. Eta ikertzeko teknika bat erabiltzeko unean, batzuen arteko aukeraketa egin behar da. Gure kasuan, langile soilak izanda (ez dute lan-harreman zuzenik) elkarrizketa irekia aukeratu dugu. Elkarrizketa bi subjektuen arteko aurrez aurreko interakzioa da: batetik, ikertzailea eta bestetik, elkarrizketatua. Azken finean, gure lana osatzerako, ez dugu informazioa soilik bilatzen, baizik eta elkarrizketatuak zer eta nola aadierazten duen adierazi nahi duena.⁸

⁸ **Jausoro, Nekane.** Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak. Hiznet 02/03. Gasteiz.
“ Teknika honekin ikergaiaren profil bereziak bilatzen dira, hots, subjektuaren ikuspegia eta ez diskurtsoaren egitura globala”.

Elkarrizketak mota desderdinetakoak izan daitezke : egituratua, erdi-egitaratua eta irekia. Gure kasuan, elkarrizketa egituratua aukeratu dugu. Gaia kokatuta geneukan eta horren inguruko galdera batzuk egin ziren. Batzuk irekiak ziren eta beste batzuk itxiak. Irekiekin elkarrizketatuen askatasuna bilatzen genuen (bere ikuspegia aske eman ahal izateko inolako trabarik gabe) eta itxia gaiaren gidotzat hartzen genuen. Hau da, gaiari eragozpenik gabe jarraitu nahi genion. Eta horretan laguntzen zigun galdetegiak. (ikus 1. eranskina) eta horren gidoi txikia ere prestatu zen (ikus 2. eranskina).

Elkarrizketa nori eta zergatik.

Gure lana aurrera eramateko, datuak behar genituen eta datu horien informazioa langileengandik jaso nahi genuen. Gure kasuan, ez zen beharrezkoa oso eredu zabalak izatea, beraz 3 langile baino ez genuen aukeratu.

Aukeraketan hainbat datu izan ditugu kontuan:

1. Gure lanaren helburua lortzeko euskara dakiten langileak behar ditugu. Eta hori dela eta, lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten Udaleko langileekin egingo dugu lan.(Amurrioko kasuan 16 langile dira) lanpostuari dagokion HE egiaztatu dutenak.

2.- Informazioa zeukaten langileak bilatzen genituen eta aukeratutakoek, euskararen erabilera gainean badaukate zer esan, euskaraz egiten baitute.

3.- Lanpostuak izaera desberdinekoak izatea pentsatu da (orokorra, jendeaurrekoa eta gizarte izaerakoa). Oso ikuspegi zabala nahi dugu eta modu horretan eginez gero, izaera guztietako zereginen arteko aldea ikustaraziko digute. Halaber, aukeratutako hiru lanpostuetan herritarrekin oso harreman zuzena dago (liburuzaina, erregistro-informazio administrari laguntzailea, idazkari laguntzailea). Informazioaren bila joaten direlako batzuetan edo herritar euskaldunentzat erreferenteak direlako besteetan, argi dago kasu hauetan euskara zerbitzu-hizkuntza dena. Lehenengo bi kasuetan ahozko harremana da nagusi eta hirugarrenaren kasuan idatzia.

Grafiko batean ikusiko dugu aukeratutako langileen deskribapena:

Lanpostuaren izena	Adm- atala	Izaera
Idazkari laguntzailea	Zerbitzu orokorrak, komunitatekoak eta hirigintza	Orokorra
Erregistro-informazio administrari laguntzailea	Zerbitzu orokorrak, komunitatekoak eta hirigintza	Jendeaurreko lanpostua

Liburuzaina	Zerbitzu orokorrak, komunitatekoak eta hirigintza	Gizarte izaera
--------------------	---	----------------

Datuak

Elkarrizketan datu asko erabiliko dira. Batzuek informazio nahikoa emango digute eta beste batzuek, ordea gutxiago. Hala ere, gure hasierako helburuetara bueltatuz, esan dezakegu bi datu-mota erabiliko ditugula (ahozko jardunaren barruan daudenak eta idatzizko jarduna barruan daudenak).

1.- Ahozko jardunaren barruan daudenak:

- Megafonia (ahozko mezua)
- Erantzungailu automatikoa (ahozko mezua)
- Irrati/tel. iragarki hizkuntza (ahozko mezua)
- Ekitaldi publikoetako hizkuntza (ahozko mezua)
- Leihatilako harrera hizkuntza (ahozko harreman hasiera)
- Telefono hasierako harrera (ahozko harreman hasiera)
- Leihatilan/bulegoan (ahozko harremana)
- Telefonoren bidezko harremana ahozko harremana)

2.- Idatzizko jardunaldi barruan daudenak:

- Bandoak (herritarrei zuzendutako dokumentu errazak)
- Web orriak, aplikazio informatikoak...(idazki luzeak)
- Jakinarazpenak, ziurtagiriak, inprimikiak... (herritarrei zuzendutako dokumentu errazak)
- Eskutitzak, akta laburrak, prentsa oharra, iragarkiak...
- Herritarrei zuzendutako dokumentu konplexuak: dekretuak, erreglamentuak...
- Erregistroa (idazki laburrak)
- Argitalpenak: katalogoak, gidak, liburuxkak (idazki luzeak)
- Hizkuntza paisajea

Datu hauek guztiak datu objektiboak dira. Lagungarriak izango dira euskara nola erabiltzen duten aztertzeko. Ikuspuntu bikoitza bilatuko dugu datu horiekin: erabilera zein den eta erabilera horrek izan ditzakeen oztupoak.

Epeak

Lan honen ardatza uztailearen amaieran aurketuta izan behar genuenez, uztailean elkarrizketak egiteari ekin genion. Horretarako Amurrioko Euskara arduradunarekin batera langileengana hurbildu ginen 2003ko uztailean. Une hartan Amurrioko Udalean II. Plangintzaldiaren informazio fasea amaituta zeukaten. Ordea, beraien lana bestelakoa zen hurrengo fasean: datu-bilketari ekin behar zioten, baina langileria osoarekin. Gainera, gure lanaren helburuak beste batzuk ziren eta ezin izan ginen amankomuneko metodoaz baliatu. Hori zela eta, langileei egin genion lan honetarako prestatutako elkarrizketa. Lehenengo bi langileekin 2003ko uztailearen 11an eta 16an izan ginen. Hirugarrenekin abuztuaren bukaeran izan ginen.

4.- Datuen azterketa

Ondorengo lerroetan langileengandik jasotako datuak azalduko dira. Lehendabizi, langile horien kokapen fisikoaren berri emango da.

4.1.- Idazkari laguntzailea - Zerbitzu orokorrak, komunitatekoak eta hirigintza

Oso lanpostu berezia da hau. Bereiztasun hori datorkio saileko konposaketatik bertatik. Saila 25 langilez osatuta dago eta zereginak arlo ezberdinetakoak dira. Oraingo kasuan, betebeharrak barneko lanari dagozkie (idatzizko jarduna) gehienbat eta herritarrekiko harremana oso gutxitan izaten du. Izatekotan, ahozko harremana ohi da. Lehen esanenez, langile honek dokumentazioarekin lan egiten du eguneroko jardunean. Bere lanpostuari 2. HE badagokio ere, berak 3 HE dauka egiaztatuta. Idatzizko testuak dira bere lan-ardatza eta berak produzitzen ditu. (Jakinarazpenak, ebazpenak, deialdiak, aktak...)

Idatzizko jarduna

Jakinarazpenak. Hauek gorde egiten dira eta astero sortzen dira. Produkzioa beti egiten da gaztelaniaz produkzioa etengabekoa baita eta denborarik ez dagoelako. Akordio bakoitzak hainbat jakinarazpen ditu eta horiek egiteak asko mugatzen dio denbora. Dekretuetan sartzekoak direnak dagokion sailak sortzen ditu, hauek herritarren eskura egon daitezten.

Aktak. Idazkariak pasatzen dizkio hartutako puntuak, baina berak garatu behar ditu bertan azaltzen diren gertaerak, akordioak eta erabakiak. Produkzioa gaztelaniaz jasotzen da eta gaztelaniaz islatzen du. Liburu ofizialetan elebrietan idazten dira (itzulpenen bidez). Eginbehar hau barneko produkzioa da.

Artxibategia. Bera da artxibategiko arduraduna. Espedientea jasotzen du jatorrizko hizkuntzan eta laburtu egiten du bere edukiera. Ordenagailuan sartzen du eta data ere idazten du. Hau guztia gaztelaniaz.

Deialdiak. Udal Gobernu-Batzordeko eta Osoko Batzarreko gai-zerrendak osatzen ditu. Idazkariak eztabaida-gaiak luzatzen dizkio eta berak zerrendatzen ditu. Hainbat informazio-batzarretatik hartutako akordioetan oinarritzen da zerrenda. Jatorrizko hizkuntza errespetatzen du. Gehienetan gaztelaniaz agertzen diren auziak dira. Gai-zerrenda horiek, politikarien artean banatzen dira karpeta batean jakinen egunean batzordea egiteko. Gobernu Batzarrak asterokoak dira eta Osoko Batzarrak hilean behin. Horrez gain, gai-zerrendak Udaletxeko iragarki-oholean agertzen dira. (jendeaurrekoak dira)

Ahozko jarduna

Bere eguneroko lan jardunean gaztelania da nagusi. Herritarrekiko zuzeneko harremana txikia bada ere, dagoenean normalean gaztelaniaz izaten da. Herritarrak aukeratutako hizkuntza - harremana mantentzen du solasaldian.

Lan-tokian inguruko jendea gaztelaniaz mintzatzen da eta hori dela eta, ahozko harremana gaztelaniaz da batez ere. Euskaldunak diren langileekin harremana euskaraz sarritan izaten da, batez ere atal buruekin duen harremanean.

4.2.- Erregistro-informazio administrari laguntzailea. Zerbitzu orokorrak, komunitatekoak eta hirigintza

Bi lanpostu daude. Baina bat baino ez da elebiduna. Sail honetan Udatxera iristen diren sarrera guztien erregistroa egiten da. Eta bestetik, Udaleko informazioa jasotzeko gunea da.

Lanpostu honen zeregina jendeaurrekoa da batez ere. Herritarrekin harreman zuzena dauka (sarrera bat egiten dutelako edota informazioa bilatzera doazelako).

Horrez gain, bere lanpostuan hasten da Udalaren zirkuito bat. Herritarrak sarrera erregistratzen duen unetik martxan jartzen duena. Eta ezin ahaztu horren garrantzia, herritarrak aukeratzen duen hizkuntza errespetatu egin behar delako.

Lanpostu honek derrigortasun data jarrita dauka (2 HE) dauka. Langile honek eskakizun hori egiaztatuta dauka.

Idatzizko jarduna

Sarrerak. Langile honek sarrerak jasotzen ditu (ez da bakarra, beste langile bat ere arduratzen da horretaz). Sarrerak oro har ez dira oso testu luzeak. Bertan herritarraren datuekin batera, azalpena agertzen da. Berak hartu eta horren sarrera egiten du ordenagailuan duen programa informatiko batean (Filemaker).

Testua gaztelaniaz sartzen du ordenagailuan, nahiz eta herritarraren testua euskaraz egon. Programa informatikoa ere ez da euskaraz agertzen ezta herritarren datuak jasotzeko plantilan ere.

Espedienteak. Udaleko sail guztietatik helarazten dizkiote. Bere lana da espediente sailkatzea eta behar denean, espediente osatzea. Idazkien jatorrizko hizkuntzan gordetzen du. Gehienetan gaztelaniaz izaten dira.

Ahozko jarduna

Telefonoa. Udaletxeko zentralita hain zuzen ere. Hasierako agurra beti egiten du euskaraz eta herritarrak aukeratzen duen hizkuntzan jarraitzen dio. Informazioa ematekoa da edota beste sail batekin harremanetan jartzekoa.

Leihatila. Ahozko harremana dauka herritarrekin. Herritar honek aukeratutako hizkuntzan jarraitzen dio solasaldian. Herritarra informazio bila hurbiltzen da leihatilara.

4.3.- Liburuzaina. (Haur liburutegiko arduraduna)

Amurrion bi liburutegi daude: Helduena eta Haur liburutegia. Elkarren ondoan kokaturik dauden arren, bietako zereginak ezberdinak dira. Haurren liburutegian herritarrekiko harremana oso zuzena da: informazioa eman, umeentzeko ekintzatan parte hartu...

Lanpostu honek badu derrigortasun-datarik ezarrita eta haur-liburuzainak 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta dauka.

Idatzizko jarduna

Oharrak. Liburutegian jartzeko oharrak izaten dira. Bi hizkuntzazkoak.

Gutunak. Mota askotakoak: irakurleei zuzendutakoak, erakunde ofizialetara bidaltzekoak, informazioa eskatzekoak... Bi hizkuntzazkoak.

Liburu-gidak. Irakurleei zuzendutakoak. Azkeneko liburuen berri emateko, liburuen iradokizunak... Bi hizkuntzazkoak.

Txostenak. Udalean eta Eusko Jaurlaritzan aurkezten duen argibidea. Bi hizkuntzazkoak.

Ahozko jarduna

Irakurleekin izaten duen harremana bi motatakoa da: Liburutegiaren funtzionamenduari buruzkoa eta haurren kasuan laguntza/informazioa. Adinarengatik kasu askotan eguneroko zeregin bihurtzen da. Euskara da nagusi.

Bestalde, ikastetxeen bisitaldiak izaten ditu liburutegiak. Horrelakoetan elkarrizketak informazioa ematea bilatzen du. Taldearen euskararen ezagueraren araberako hizkuntzan egiten du berbaldia.

Aldizkako ekitaldiak: ipuin-kontalariak, tailerrak... Aurkezpena egiten du, instrukzioak eman...Euskaraz izaten da gehienetan.

5.- Ondorioak

Banan-banako ondorioak

Idazkari laguntzailea

- Lanpostu honi dagokion hizkuntza eskakizuna bigarrena bada ere, benetako lan jarduna ikusita, zereginetan 3 HEeko helburuetara hurbiltzen da oso modu nabarmenean.
- Lan-harremanetan eguneroko harremana duen maila bereko lankideen artean erdiek baino gutxiagok dakite euskaraz hitz egiten. Nagusiekin ia dena euskaraz egiten du. Beraz, inguruko jendeak eragiten dio euskara erabileran.
- Herritarrekiko harremanak ez dira oso ugariak eta diren bakarrak azalpen laburrak emateko dira. Hauek normalean gaztelaniaz izaten dira.
- Atal barruko inprimakiak, jendearentzako inprimakiak eta jakinarazpenak, atal barruko txostenak eta herritarrentzako txostenak beti gaztelaniaz izaten dira.
- Euskararen erabilera bi oztopo dauzka: batetik, euskara behar bezala ez menperatzea eta bestetik, euskaraz ere ekoiztekotan lan bikoitza egin behar izatea.
- Lanez gainezka agertzen da. Nahiz eta euskareriko jarrera eta euskara maila oso ona diren, berak dio ezin duela euskaraz produzkitu.
- Bestalde, inguruko langileek euskara ez jakitea ez da inolako aitzakiarik euskaraz gehiagotan aritzeko.
- Zerbitzu hizkuntza adierazle batzuk ezin dira neurtu langile honekin. Berezi ahozko jardunari dagozkionak, herritarrekiko harremana oso murrizta baita.
- Euskaraz produzitzeko arazorik handiena zuzentasuna eta ortografia ez menderatzea litzateke.
- Langilea prest egongo litzateke eskolak jasotzeko (lanorduz kanpo). Adierazpen honek ikustarazten digu oso jarrera ona duela euskararekiko.
- Bere ustez, tresneria informatikoak ez liguke asko lagunduko euskaraz egonez gero.

Erregistro-informazio administrari laguntzailea

- Lan jardunari dagokionez, hau ahozkoa da batez ere. Herritarrekin harreman zuzena dauka. Bi motatakoa da ahozko harremana:
 - Aurrez aurreko harremana (jendeaurreko harrera)
 - Urrutiko harremana (telefonoren bidezkoa)
- Produkzio idatzia. Herritarrengandik zuzenean jasotzen ditu sarrerak geroago erregistratzeko. Berak herritarrak eginiko testua laburtu eta gaztelaniara pasatzen ditu erregistro-eroldan alta emateko garaian.
- Harreman sareari dagokionez, erdiak baino gutxiagok dakite euskara eta horrek markatzen du beste langile batzuekin duen harreman-mota. Nagusiekin harremana euskaraz izaten da gehienetan. Ataleko langileekin harremana beti gaztelaniaz izaten da, administrazio orokorrekoekin euskaraz zein gaztelaniaz. Bulego teknikokoekin gaztelaniaz euskaraz baino gehiago. Langile euskaldunekin euskaraz mintzatzen da normalean.
- Hasierako agurra beti euskaraz egiten du. Geroago herritarrak aukeratzen duen hizkuntzan hitz egiten du.
- Azalpen laburrak eta luzeak emateko garaian herritarren aukeratutako hizkuntzan egiten du.
- Testurik idatzi behar izanez gero, atal barruko inprimakiak beti gaztelaniaz idazten ditu eta ez du beste motatako testurik idazten (jendearentzako inprimakiak, jakinarazpenak, atal barruko txostenak, herritarrentzako txostenak...)
- Euskara modu egokian erabiltzeko garaian agertzen zaion zailtasuna euskara behar bezala ez menderetzea da. Pertsona batekin erabiltzeko hizkuntza aldatzeko zailtasunak ere baditu.
- Terminologia ez menderetzeari ez dio garrantzirik ematen horrekin lan egiten ez baitu.
- Zerbitzu hizkuntzako adierazleak eta erabilerarako zailtasuna.
 - Ahozkoak. Bere ustez, euskaraz hitz egiteko orduan eta berak erabiltzen dituen erabiltze-egoerak kontuan izanda, hau da zailtasun-maila ordenaren arabera: leihatilako harrera hizkuntza, leihatilan eta barneko lana, telefonoko hasierako harrera eta telefonoaren bidezko harremana.
 - Idatzizkoak. Herritarren erregistro-sarrerak (hauek baino ez ditu lantzen). Ez du zailtasunik agertu, gaztelaniaz lantzen baitu.

- Euskara modu egokian erabili ahal izateko, formakuntza hobea beharko luke. Euskara aspaldi ikasi zuen eta ez du inoiz birziklatze-ikastarorik egin. Beste adierazpen batzuk (zalantzarik izanez gero, nora jo ez izatea, eredurik ez edukitzea...) ez ditu aintzat hartzen.
- Jarrerari dagokionez, langile hau euskara eskolak jasotzeko prest agertzen zaigu. Horretarako erdi bideko konponbideari ondo deritzo (birziklatze – ikastaroa, lanorduan eta lanorduz kanpo)
- Aurreko kasuan bezalaxe, ez dio garrantzi handirik ematen euskararen erabilera tresneria informatikoak joka dezakeen paperari.

Liburuzaina

- Euskara maila ona izanda ere, erosoago sentitzen da gaztelaniaz lanaz eta gai pertsonalez mintzatzeko.
- Liburutegiko lankidearekin euskaraz zein gaztelaniaz aritzen da. Atal buruekin, aldiz euskaraz mintzatzen da.
- Sailei dagokienez, ataleko langileekin, administrazio orokorrekoekin eta bulego teknikoekin gaztelaniaz zein euskaraz izaten du lan harremana.
- Lankidea euskalduna bada, euskaraz sarriagotan egiten du.
- Herritarrekin, azalpen oso luzeetan ez, besteetan euskaraz gaztelaniaz baino gehiagotan egiten du.
- Idatzizko jardunari dagokionez, idazten dituen testuak elebrietan agertzen dira: gutunak, oharrak, txostenak... Batzuk jendeaurrean jartzekoak direlako eta beste batzuk, erakunde ofizialetara bidaltzeko testuak direlako.
- Euskara idatzian modu zuzenean duen oztopoa terminologia ez menderatzean datza.
- Zuzenketa-zerbitzua eskura izateak lagunduko lioke euskara idatziaren kalitatea hobetzen.
- Euskara hobetzeko prest agertzen da birziklatze edota trebakuntza ikastaroen bidez.
- Teknologia berriei garrantzia ematen die euskaraz sarriagotan egiteko.
- Konforme agertzen da euskararen erabilera areagotzeko egin litezkeen ideia guztiekin.

Langileen gainerako ondorioak ikusi ditugularik, **ondorio orokor batzuk** ateratzen ditugu:

- Langile hauen eguneroko lan-jardunaeen euskararen presentzia garrantzitsua da, sarritan erabiltzen duten seinalea.
- Erreferente bat euskaraz baldin badute,(adibidez, aurreko harremanean euskaraz egitea) euskaraz egiten saiatuko dira.
- Ahozko erabilera idatzia baino ugariagoa da.
- Herritarrekiko ahozko harremanean berak aukeratutako hizkuntza errespetatzen saiatzen dira beti.
- Erabilera idatzian oztopo gehiago aurkitzen dute ahozkoan baino.
- Idatzizkoetan azalpen luzeak ematerakoan zailtasun gehiago izaten dute.
- Euskararen erabilera hobetzeko programetan sartzeko prest agertzen dira.

6.- Ekintzak eta proposamenak: Unitate didaktikoa

Lan hau osatzerakoan kontuan izan behar ditugu hasiera batean izandako helburuak eta zereginak. Gure lana ondo osatzeko egoera baten behaketatik abian hasi gara eta langile hauen lana errazteko lagungarriak izan daitezkeen tresnak unitate didaktiko banatan sartu nahi izan ditugu. Betiere, lanaren ezaugarriak kontuan izanda.

Egoera aztertu dugu eta ondorioak ere atera ditugu. Unitate didaktikoetan langile bakoitzak izan behar dituen helburuak eta hipotesiak ditugu langai. Bestalde, unitate bakoitzeko puntuak ikusi baino lehen, aipatu behar dugu trebakuntzaren baliabideak⁹ ere ezinbestekoak direla. Baliabide hauek, gehienbat materialak dira:

- Beren lana errazteko lagungarriak izan daitezkeenak: hiztegiak, termino-zerrendak, maiztasun handiz erabiltzen dituen oinarrizko euskarazko testuak...
- Eguneroko inprimakiak edo ereduak euskaraz izatea. Horrez gain, daudenen zuzenketa ere baliogarria litzateke egokitzea.
- Itzulpengintza. Euskaraz eta gaztelaniaz egitea, kasu gehienetan lan nekeza izaten da. Horregatik, ondo legoke kanpoko laguntza ematea sikiera itzulpen batzuetan.
- Sistema informatikoa. Euskarara egokitu eta eguneratu.
- Hizkuntza paisajea: Errotuluen, zigiluen eta beste elementu batzuen egokitasuna (fax orriak, menbreteak...)

Unitate didaktikoa diseinatzerakoan ondorengo puntuak hartu dira kontuan:

- Langilearen lanpostuaren ezaugarriak
- Unitate didaktikoaren helburu orokorra
- Helburu zehatzak
- Autoebaluaketarako hasierako ariketa
- Hipotesiak
- Prozedura (hainbat ariketa)
- Azken ebaluaketa

Hiru unitate didaktiko prestatu dira. Langile bakoitzaren profila ikusita: gaitasun maila, eguneroko zeregina, euskaren erabileraren inguruko hausnarketak... Langile bakoitzari egokia izan dakioken unitatea osatu dugu. Gehienetan ahuleziak zuzendu nahian eta batez ere, euskara benetako zerbitzu-hizkuntza izan dadin.

Ikastunitateak euskara ulergarria eta funtzionala izatea lortu nahi du. Helburu hori lortzearen, hainbat ariketa osatuko ditugu ikastunitatean. Ariketa hauek mota ezberdinetakoak izango dira. Guztietan lanaren testuinguruaren gaineko esaldiak,

⁹ Amurrioko Bideragarritasun-txostena.

esaerak eta hiztegia lantzen dira. Modu horretan, irakaskuntza praktikoagoa egiten dugu.

Langileak euskaraz egitean autonomia handiagoa izango du materiala lortu behar badu. Bestalde, ulergarriago egiteko teknika batzuek baliatuko da langilea.

Hiru ikastunitate hauek zazpina atal dituzte. Lehenengoan, langilearen lanpostuaren ezaugarriak aipatzen dira, ondo koka dezagun. Geroago, ikastunitatearen helburu orokorra eta zalantzak. Langilearen eta lanpostuaren arabera helburua idazkietn edo ahozko komunikazioan oinarrituko da.

Autoebaluaketarako hasierako ariketa burutzen da. Landuko den auziaren zereginak inolako laguntzarik gabe egiteko proposatzen zaio langileari, dituen zailtasunak lehenengo ikusteko. Bukaeran, ikastunitatean lortutakoarekin alderatuko du.

Hipotesiak planteatzen dira langileak hasierako ariketan izandako gabeziak kontuan hartuta.

Ariketa batzuk azaltzen dira, eguneroko jardunaldian langileak aurkitzen dituen egoerak islatzen dituztenak.

Azken ariketa. Ikastunitateko ariketak egin ondoren, hasierako ariketa egitea proposatzen zaio langileari. Biak alderatuz, nabarituko du zein aurrerapen egin duen.

Ordu kopuruari dagokionez, ikastunitatean jasotzen dena, aste bateko lana izango da. Aste batean burutu beharko du proposatzen zaiona. Ikastunitatean zehar tutorea izango du. Astean zehar, ikastunitate osatzeko eragozpenak kontsultatuko dizkio tutoreari eta aste amaieran, ikastunitatearen gorabeherak komentatuko ditu (zailtasunak, zalantzak, ondorioak...).

Langileak eredutzat hartu dugun ikastunitate bezalako batzuk osatu beharko ditu denboraldi zehatz batean. (langilearen eta aurrerapenaren arabera). Hemen agertzen dena, eredu bat baino ez da.

6.1.- Lehenengo ikastunitatea Ikastunitatea (Idazkari laguntzailea)

Hemen aurkezten den ikastunitatea zentzu zehatz batean azaltzen da. Hau da, ikastunitate hau ez da ikaslearekin egiteko ikasturteko planik, baizik eta ikasturterako plan batetik har daitekeen eredu bat. Eredua aurkeztuko dugu langileak erabilgarria izango duelakoan. Honen helburua da ikasturtean nondik norakoa izango den ikustea betiere, lanaren helburu orokorren barruan.

Ikastunitate hau hobeto zentratzeko, lehenengo lanpostuaren ezaugarriak izango ditugu kontuan. Ikus ditzagun:

Administrazio atala: zerbitzu orokorrak – komunitatea – hirigintza

Lanpostuaren izena: Idazkari laguntzailea

Izaera : orokorra

Taldea: D

Lanpostuaren hizkuntz eskakizuna: 2

Langilearen hizkuntz eskakizuna: 3

Data: 1998/07/14

1.1.- HELBURU OROKORRA

- Administrazio idazki desberdinen ezaugarriak aztertu eta landu.

1.2.- HELBURU ZEHATZAK

- Eguneroko idazkien edukiez jabetzea.
- Mezu nagusia jasotzea.
- Testuaren mamia esaldi bakarrean eta oso esaldi gutxitan ematea.
- Administrazio inguruko hiztegian murgiltzea.

1.3.- AUTOEBALUAKETARAKO HASIERAKO ARIKETA

- Prozedura. Ikasleari iragarki bat planteatuko diogu. Iragarki horretan ez dago akatsik, baina bai nahaste handia. Ikasleak berregin egin beharko du edo berriro egin beharko du.

G.A.M. UDALEKO URAREN KUDEAKETAK
USTIAPEN ETA MANTENIMENDU ARLOKO ARDURADUNA BEHAR DU
(223 erref.)

Ondoko lanez arduratuko da: ur-hondakinen saneamendua eta ur hornidurarako sarean instalazioen mantenimendua. Horrez gain, bere departamentuaren sarearen instalazioen mantenimendua. Horretaz gain, bere departamentuaren kudeaketaz arduratuko da., produkzioaren kostuak hobetuz. Obra eta proiektuak departamentuari lagunduz, azpikontratak gainbegiratzuz, txosten teknikoak idatziz eta abar)

Lanpostua betetzeko honako hau eskatzen da: Industri ingineru titulazioa, hobe

elektrizitate espezialitatekoa: ur instalazioetan, telemandoetan eta ekipo elektronikoetan esperientzia izatea: eta pertsona arduratsua, disziplinatua, ekimentsua izatea, eta

harremanetarako eta antolamendurako ahalmena erakustea.

2003 urteari dagokion ordainketa gordina 35.421 eurokoa da, horren barruan 4.550 euroko urteko lan-osagarri ordainduko delarik.

Eskabideak aurkezteko epea irailaren 7ra arte. Aukeratutako hautagaiei erantzungo zaie (gutxi gora-behera 15 eguneko epean)

Interesatuak Amurrioko 99 posta-kutxara idatzi, curriculum osoa erantsiz eta kartazalean goian adierazten den erreferentzia adieraziz.

- Saia zaitez hurrengo ereduko hutsuneak betetzen. Oraingoan informazioa ataletan ematen da.

**G.A.M. UDALEKO URAREN KUDEAKETAK
USTIAPEN ETA MANTENIMENDU ARLOKO ARDURADUNA BEHAR DU
(223 erref.)**

Lanaren zereginak

-
- Bere sailaren kudeaketaz arduratzea, besteak beste:
 -
 - ...
 -
 - ...

Lanpostua betetzeko baldintzak

-
-
- Izaera
 -
-
- Urteko lan-osagarria: 4.550 euro.

Eskabideak

-

Oharra

-

- Iragarki horren zuzenketa ikaslearekin batera egingo da (zuzenketa komentatua)

G.A.M. UDALEKO URAREN KUDEAKETAK
USTIAPEN ETA MANTENIMENDU ARLOKO ARDURARDUNA BEHAR DU
(223 erref.)

Lanaren zereginak

- Ur-hondakinak saneamenduaz eta ur hornidurako sarearen instalazioen mantenimenduaz arduratzea.
- Bere sailaren kudeaketaz arduratzea, besteak beste:
 - Produzioaren kostuak hobetzea.
 - Obra eta proiektuak departamenduari laguntzea.
 - Azpikontratak gainbegiratzea.
 - Txosten teknikoak lantzea.

Lanpostua betetzeko baldintzak

- Titulazioa
 - Industri ingeneru titulazioa. Hobe elektrizitate espezialitatea.
- Esperientzia
 - Ur instalazioetan, telemandoetan eta ekipo elektronikoetan.
- Izaera
 - Pertsona arduratsua, disziplinatua, ekimentsua izatea eta harremanetarako eta antolamendurako ahalmena erakustea.

Ordainketak

- 2003ko soldata gordina: 35.421 euro.
- Urteko lan-osagarria: 4.550 euro.

Eskabideak

- Epea: irailaren 7ra arte
- Helbidea: Amurrioko 99 posta-kutxa (bidali curriculum eta adierazi gutunazalean goiko erreferentzia)

Oharra

- Aukeratutako hautagaiei erantzungo zaie (15 eguneko epean)

1.4.- HIPOTESIAK

- Testua nabarmen iluntzen du eta arazoak ditu testuaren mamiarekin.
- Ikasleri kostatzen zaio testuaren edukien banaketa egitea.

1.5.- PROZEDURA

Hainbat ariketa

1.- Lehenengo ariketa

Administrazioiko idazki batzuek egitura berdina eta ezaugarri antzekoak dituzte:

- Askok ez dute izenbururik, eta herritarrak oso irakurri behar du idazkiaren ideiaz ohartzeko.
- Gehienetan, zerbaiten berri ematen zaio herritarrari eta berri horren osagarria legea edo dekretua izaten da. Euskaraz, horiek mezu nagusiaren aurretik jasotzen dira.
- Testuaren mamia oso esaldi gutxitan ematen da.

Irakurri hurrengo testua. Geroago hobetzen saiatuko gara.

Honen bidez,.....matrikula duen Autoa herri honetakokalean, egoera txarrean eta aspaldian utzita daukazula jakinarazten zaizu.

Hori dela eta, Amurrioko Udaleko motoredun ibilgailuen zirkulazioa, bide segurtasuna eta trafiko urrapengatiko zigorrak erregulatzen dituen Ordenantza Orokorraren 23.12 artikulua araberan, 72 orduko epean zure ibilgailua dagoen tokitik ken dezazula agintzen dizut, epe hau ibilgailua jaso gabe bukatzen bada, Udaletxe honetako langileek erretiratuko dutela azalduz, zuk sortutako gastu guztiak, eta honi dagokion isuna ordaindu beharko dituzu.

Molda ezazu testua ondorengo gomendioei jarraituz:

- Izenburua idatzi.
- Lehen lerroaldean (Honen bidez....) aurreratu aditz nagusia.
- Kendu lege-erreferentzia lerroalde nagusitik, eta idatzi testuaren amaieran.
- Utzi bi ideiak lerroalde nagusian: lehenengoa, autoa kentzeko agindua eta epea; eta bigarrena, hori egin ezik izan daitezkeen ondorioak.

.....(izenburua)
.....
.....(jakinarazpena)
.....
.....
.....(agindua eta ondorioak)
.....
.....(lege- erreferentzia)

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

4.- Laugarren ariketa

Eta amaitzeko, aldizkari ofizialeko testu bat hartuko dugu. Testu hau egokitu orain arte egindako bideari jarraituz. Horretarako laguntza ematen dizugu.

212/1997 DEKRETUA, irailaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko 1998rako Lan egutegia onartzen dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 12.atalak eta Langileen Testu bateratua onartzen duen martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege-Dekretuko 37. atalak ezartzen dutenaren arabera, Jaurlaritza honen eskumena da Euskal Autonomia Elkartearen 1998an izango diren jai eta lan egunen egutegia zehaztea, betiere, urtean 14 jaiegunetako muga errespetatuz.

DEKRETUA
Zenbakia:
Eguna:
Gaia:

.....
.....
.....(zeinek zehazten du egutegia?
Eta zenbat jai egun dira, gehienez ere?)
.....
.....(zein legetan jasotzen da guzti hori?)

1.6.- AZKEN EBALUAKETA

Azken ariketari ekingo diogu. Ariketa honetan ikusiko dugu ea ikastunitate honetan zehar erabili duzunari ondo erreparatu diozun.

Iragarki bat planteatzen dugu. Irakurri iragarki hori eta ondoren erantzun datozen galderei.

GAZEOKO UR KONTSORTZIOA
IRAGARKIA

Herri-erakundeen diruz eratua dagoen eta egoitza Gazeon duen enpresa honek, lanean berehala hasiko den eta trebe eta orestua den administraria behar du. Lanbide Heziketako (administrarien adarrekoa) 2. mailako ikasketak dituen, euskaraz hitz egiten eta idazten dakiena edo EGA titulua duena, eta idazmakinan minutuko 150 pultsazio egiten dituen. Kontuan hartuko da, halaber, tresneria informatikoa erabiltzen jakitea eta esperientzia izatea. Gazeoko Ur Kontsortzioak, bestalde, lanean berehala hastea eskaintzen du, bai eta soldata hautagaiak erakusten duen gaitasunaren arabera hitzatzea ere. Azkenik, eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 4ra arte izango da, curriculum osoa eta harremanetarako telefonoa Gazeoko (28466 posta-kodea) Errekaleor kaleko 2 zenbakian egoitza duen Gazeoko Ur Kontsortziora bidali behar dira.

Gazeo, 2003ko uztailaren 15

ZUZENDARIAK

1.- Zein da iragarkiak eman nahi duen mezu nagusia?

.....

2.- Zenbat ataletan banatu behar da informazioa, eta zein dira atal horiek?

.....
.....
.....
.....

3.- Zein dira, zure ustez, soberan egon litezkeen hitz eta esaldiak?

.....
.....
.....

4.- Ikusten duzunez, akats nabarmenik ez badago ere, informazioa nahaste-borrasteen ematen zaigu: egin ezazu hobeto, hobeto egiterik badago.

.....
.....
.....
.....
.....

HIZNET 02/03

Euskararen erabilera administrazioan. Euskararen erabileran laguntzeko unitate/modulo didaktikoak:
Amurrioko Udala.

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

6.2.- Bigarren ikastunitatea (Idazkari laguntzailea)

Ikastunitate honetan jendaurrean lan egiten duenaren lan jarduera landuko dugu. Ikastunitate honetan helburuak bestelakoak dira eta hizkuntzaren komunikagaritasunera joko dugu.

Lanpostu honetan, langileak herritarrekiko harreman zuzena daukan neurrian, harrera egiteko gaitasunari erreparatuko diogu. Baina ikus dezagun, berriro ere lanpostu honetako ezaugarriak zeintzuk diren.

Administrazio atala: zerbitzu orokorrak – komunitatea – hirigintza

Lanpostuaren izena: Erregistro-informazio administari laguntzailea

Izaera : jendeaurreko lanpostua

Taldea: D

Lanpostuaren hizkuntz eskakizuna: 2

Langileak egiaztatutako hizkuntz eskakizuna: 2

Derrigortasun Data: 1994/06/23

2.1.- HELBURU OROKORRA

- Gaitasun komunikatiboa landu bere erabileraren esparruaren arabera.

2.2.- HELBURU ZEHATZAK

- Naturaltasunez herritarrei harrera egiteko kapaz izatea (zalantzak uxatuz eta gutxieneko ziurtasun eta zuzentasunari begiraturaz)
- Diskurtsorako estrategiak eta baliabideak landu (ahoz nahiz idatziz)
- Erregistroak desberdintzen ikasi (ahoz eta idatziz)
- Administrazio hiztegia landu.
- Euskaltzaindiaren arauak berrikusi.

2.3.- AUTOEBALUAKETARAKO HASIERAKO ARIKETA

- Prozedura.

Ahozko produkzioa neurtuko diogu ikasleari, horretarako berak bere eguneroko rola gauzatu beharko du eta beste ikaskide batek edota irakasleak hurrengo arazoa plateatuko dio:

“ Arazo nabarmenak ditut oinez ibiltzeko eta garraiobideak erabiltzeko. Hori dela eta, nire autoa aparkatzeko txartela eskatzen diot udalari, elbarritasunari buruzko legezko baldintzak betetzen ditudanez.”

Beraz, ikasleak harrera egingo dio balizko herritar honi. Produkzioa grabatuko dugu, bere beharren arabera ikastunitatea diseinatzeko.

2.4.- HIPOTESIAK

- Bai sarrerako bai bukaerako agurrean erregistroarekiko hutsuneak ditu. Horregatik ikastunitea landuko dugu erregistroari begira; hau da, zenbait elkarrizketa aztertuz egokitasunerantz joko dugu, betiere erregistroa zainduz. Bukatzeko, agur horiek guztiek suposatuko luketen idatzirako jauzia ere aztertuko dugu.

2.5.- PROZEDURA

2.5.1.-Lehenego ariketa

Telefonozko harremanak lantzen.

- Entzumena. Ematen den 4. elkarrizketatik datuak hartu beharko ditu.
- Fokalizatu. Agurrak (Grabaziokoak eta berari bururatzen zaizkionak)

1. elkarrizketa

Telefonaria - bai, esan.

Gizona - Miren Etxezarretarekin mesedez.

Telefonaria - Bankura joan da, laster etorriko da. Zer nahi duzu?

Gizona - Bere senarra naiz. Erresidentziatik deitzen dizut. Pasatuko al diozu abisu bat mesedez.

Telefonaria - Bai, bai esan.

Gizona - Zera da, nire ama erori egin da kalean eta zerbait hautsiko zuen beldurrez erresidentziara ekarri dugu. Hemen nago bererekin eta ezin naiz mugitu bakarrik nago eta. Beraz ezingo naiz umeen bila joan eskolara eta bera joateko edo ahal duen moduan konpontzeko, esango al diozu?’

Telefonaria - Ongi da. Esango diot bai, nire kontu.

Gizona - Esaiozu lasai egoteko, amarena ez dela ezer eta nik deituko diodala etxera ahal dudanean, ezin baitut ama bakarrik utzita telefonora etorri. Baina lasai egoteko eta umeen bila joateko.

Telefonaria - Lasai egon. Etorri bezain pronto abisua luzatuko diot.

2.- elkarrizketa

Telefonaria	- Eusko Jaurlaritza.
Kontuhartzailea	- Osasun saileko Lurdes Esparzarekin mesede.
Administraria	- Bai esan.
Kontuhartzailea	- Lurdes Esparza?
Administraria	- Bai neu naiz.
Kontuhartzailea	- Begira Andatzako Udaletik deitzen dizut. Guk diru-laguntza jasotzeko eskaera bat egin genuen horra, herrian egin dugun kanpainarako laguntza eskatuz. Onartuta izan zen eta hemen dut zuek bidalitako gutuna martxoaren 8ko datarekin. Ia hilabetea pasatu da eta orduetik ez zaigu transferentziarik iritsi. Auzi hau nola dagoen galdetzeko deitzen dizut.
Administraria	- Itxaron pixka batean, espedientea begiratzera noa...bai hementxe daukat. Honekin ez dago inolako arazorik. Laster iritsiko zaizuela pentsatzen dut. Ogasun sailera pasatu dugu eta bertan izango dute.
Kontuhartzailea	- Eta zer komeni da, Ogasun Sailakoekin hitz egitea edo?
Administraria	- Ez, ez. Nik ohartxo bat pasatuko diet, deitu duzula esanez eta pentsatzen dut ez duela luze joko. Hala ere, astebetera edo, ezer iritsi ez bazaizue, berriro deitu eta Ogasuneko Andres Munorekin hitz egin.
Kontuhartzailea	- Mila esker, bada.
Administraria	- Zuri.

3 elkarrizketa

Telefonaria	- Bai, esan.
Herritarra	- Egun on, Udaltzaingoaren buruarekin mesedez?
Telefonaria	- Oporretan dago. Zer nahi duzu?
Herritarra	- Etxe parean obrak egiten ari dira eta ez dakit zer makina duten, baina goizeko 7etan jartzen dute martxan. Bitan deitu dut horra

	Udaletxera, baina oraindik ez dut erantzunik jaso.
Telefonaria	- Ongi da. Itxaron apur batean. Telletxea jaunarekin jarriko zaitut.
Telletxea	- Bai, nor da?
Herritarra	- Begira, Aldamar kaleko 7.etik deitzen dizut. Aurreko astean ere bitan deitu nuen horra eta ez dakit zurekin edo beste batekin hitz egin nuen. Arazoa zera da: obrak ditugula etxe parean eta konpresorea goizeko 7etan jartzen dutela martxan. Horrek horrela behar al du? Egin al dezakete hori?
Telletxea	- Ez, ez. Ez dute baimenik horretarako. Goizeko zortziak arte ezin dute zaratarik atera. Gaur bertan bidaliko dugu brigada eta jakinaraziko diegu. Salaketarik jarri nahi duzu?
Herritarra	- Ez, ez. Nahikoa da isiltzen badira.
Telletxea	- Hori gure kontu, gaur bertan joango gara.
Herritarra	- Beno bada. Ea egia den!. Agur eta mila esker.
Telletxea	- Agur bai, agur.

4. elkarrizketa

Telefonaria	- Andatzako Udala
Bulegaria	- Kontuhartzailearekin mesedez.
Kontuhartzailea	- Bai esan.
Bulegaria	- Etxepare inprimategitik deitzen dizut. Joan den astean faktura bat bidali genizuen Andatzako Pertsonaia Ospetsuen liburuaren tiradari dagokiona. Zera komentatu nahi nizun: fakturak akats bat duela. Nahastu egin ginen eta gure identifikazio fiskaleko zenbakia oker agertzen da bertan.
Kontuhartzailea	- Esango al didazu fakturaren zenbakia zein den?
Bulegaria	- Bai 2003/0523 faktura da.
Kontuhartzailea	- Itxaron pixka batean. Bai, hementxe dago.
Bulegaria	- Zera, bertan A-48330001-C zenbakia agertzen da eta hori ez da gurea. Nahastuta bezero batena idatzi genuen: gurea A-202660015-C da. Eskertuko nizuke faktura hori atzera itzuliko bazenigu. Nik

	berria prestatuta daukat eta gaur edo bihar bidaliko dizuet.
Kontuhartzailea	- Ongi da. Ea gaur bertan itzultzen dizuegun.
Bulegaria	- Mila esker eta barkatu eragozpenak.
Kontuhartzailea	- Lasai, lasai eta agur/ez da ezer.

OHARRAK IDAZTEKO EREDUA

Eusko Jaurlaritza TELEFONO DEIAK	
NORENTZAT.....	
ORDUA.....	EGUNA.....
Kanpoan zeundelarik	
NOR(K).....	
NONGOA.....	
ZKIA.....	
.....	
<input type="checkbox"/> DEITU DU	<input type="checkbox"/> DEITZEKO ESKATZEN DU
<input type="checkbox"/> ETORRI DA	<input type="checkbox"/> BERRIRO DEITUKO DU
<input type="checkbox"/> HONAKO MEZU HAU UTZI DU:	
.....	
.....	
.....	
.....	
.....	

2.5.2.- Bigarren ariketa

Azalpen osagarria bai agurren inguruan, bai telefonoz hizketan ari gareneko zenbait esamolderen inguruan. Hurbilpen teorikoa.

ELKARRIZKETA-HASIERA. HASIERAKO AGURRA

Gutako gehienok, telefonoak jotzen duenean, bai edo bai esan erantzuteko ohitura dugu. Horrela, askotan, deitu duenak galderaren bat egin behar izaten du, telefonoaren bestaldean duena berak bilatzen duena den edo ez jakiteko.

* *Badago Koldo?*

* *Hortik ba al dabil Koldo?*

Hor al dago Koldo?

Koldo hor al dago?

Zentralita eta horrelakoetan deitzen duenak galdezka ibili behar ez izateko, eta erakundearen nortasuna indartzeko edo agerian uzteko, erakundea identifikatzea komeni da telefonoa hartzerakoan. Deitu duenak nora deitu duen egiaztatzeaz gain, herritarrak edo bezeroak harremana pertsonalagoa dela sentitzeko ere balio du. Deitu duenak zuzenean jakingo du norekin hitz egiten ari den. Agurra ere garrantzitsua da horrelakoetan. *Egun on* edo horrelako agurren batekin harremanak pertsonalizatzeaz gain, hurbiltasuna lortu eta jarrera positiboa ere adierazten diogu herritarrari.

Euskalduntze Zerbitzua, bai, esan.

Euskalduntze Zerbitzua, egun on (eguerdi on, arratsalde on, gabon,...)

Batzuetan, eta lanpostuak edo lanpostuko betebeharrak hala eskatuz gero, komeni da telefona hartzen duenaren izena ere esatea.

Euskalduntze Zerbitzuko Begoña Beitia; egun on.

edo

Euskalduntze Zerbitzua. Begoña Beitia naiz; egun on (Begoña Beitiarekin ari zara).

Gure **lehen hitza euskaraz egiten** badugu, deitu digunari euskara erabiltzeko bidea ematen diogu.

ELKARRIZKETA

Hitz egitea bezain garrantzitsua da entzuten jakitea. Beraz, utzi hitz egiten solaskideari. Ez eten, oso beharrezko ez badugu ikusten behintzat. Honela, hariaren bestaldean dagoenak zer nahi duen jakingo dugu eta ondorioz egoerari egokituko gure jarduna. Norbaitekin telefonoz ari garela, badira behin baino gehiagotan errepikatzen diren egoerak, ia beti formula jakin batzuekin konpontzen direnak: deia beste norbaiti pasatu itzaroteko esan, norbait ez dagoela esan eta mezuren bat hartu... Ikus ditzagun horietako batzuk.

DEIA BESTE NORBAITI PASATZEKO

Dei bat beste norbaiti pasatu behar baldin badiogu, komeni da solaskideari esatea zer zerbitzu, sail edo dena delakoarekin eta norekin jarriko dugun. Deia pasatu aurretik solaskidei, agurtzen badugu, hurbiltasun puntu hori areagotuko dugu herritarrarengan. Era berean, solaskidea pertsona egokiarekin jarriko dugula ziurtatu beharko dugu.

Itxaron pixka batean, mesedez, berehala jarriko zaitut zuzendariarekin.

Zaude pixka batean.

Noren partez, mesedez?

Noren partetik, mesedez?

Nork deitzen diola esango diot?

**Oraintxe jartzen zaitut zuzendariarekin.*

Oraintxe jarriko zaitut zuzendariarekin.

ITXAROTEKO ESKATZEKO

**Beste linea batetik hitz egiten dago.*

Beste linea batetik hitz egiten ari da.

Telefonoz hitz egiten ari da. Itxaron nahi duzu?

NORBAIT EZ DAGOELA ESATEKO

Une (memento) honetan ez dago,/ orain ez dago, bada, mezuren (enkargu, errekaduren) bat utzi nahi diozu? Kanpoan da, (datorrenerako) mezuren bat-edo laga nahi diozu.

Sentitzen dut, baina une honetan ez dago!

**Bilduta dago. Bilera batean dago, mezurik utzi nahi?*

ELKARRIZKETA AMAIERA.AGURRAK

Elkairizketa amaitzeko herritarra agurtu. Gogoratu bera dela gure bezeroa. Hona hemen esamolde batzuk:

Eskerrik asko deitzeagatik. Hurrengora arte!

Eskerrik asko deitzeagatik, eta arratsalde on!

Mila esker (Esker mila)!

**Beste bat arte.*

Beste batera arte.

Hurrengora arte.

Eskerrik asko!

Ez horregatik!

Eskerrik asko!

Ez dago zergatik!

Eskerrik asko!

Ez da ezer ere!

Eskerrik asko!

Baita zuri ere!

Eskerrik asko!

Eskerrak zuri/zeuri!

KONTUAN EDUKI BEHARREKO BESTE ZENBAIT GAUZA

- Irribarretsu baldin bagaude, solaskideak ere igarriko du telefonoz bestaldean gure jarrera positiboa dela.
- Hitz garrantzitsuak azpimarratu.
- Norbaitek zerbaitengatik kezatzeko deitzen badu, patxadaz hartu, ez jokatu zuri kontu eske ari balitzaizu bezala. Horrelakoetan, ez eten solaskideari. utzi barruak husten.

Hala ere, ez dago zertan beti arrazoia eman bezeroari. Bezeroaren lekuan jartzen saiatu bai, beharbada; baina, horregatik arrazoirik eman ez. Jarrera neutrala hartuko dugu, eta saiatuko gara inori errurik ez egozten. Hala ere, gure laguntza eskainiko diogu.

- Aldatu entonazioa eta elokuentzia, hau da, erritmoa (telefonoz aurrez aurre baino geldoago hitz egitea komeni da).
- Saihestu formulak eta superlatiboak.
- Positiboak izaten saiatu beti. Bai jarreran bai hizkuntzan (hizkuntza positiboa, argia eta zehatza).

**Ez nago oso ziur, baina baietz uste dut.*

Baiezkoan nago. Baietz esango nuke. Baliteke horrela izatea.

**Ez nago ados zurekin.*

Nire ustez honela eta horrela da.

**Arazo hori ez dagokigu guri.*

Gai hori-ren ardura da.

**Ez arduratu, ez duzu inolako arazorik izango.*

Egon lasai, gu arduratuko gara horretaz.

"Ez zenuke nahiko guk deitzea?"

Nahi izanez gero guk deituko dizugu.

** Ez eskegi, berehala itzuliko naiz.*

Itxaron piska batean, berehala naiz zurekin.

**Ez dago beste irtenbiderik.*

Irtenbide bakarra da.

**Ez dut uste denbora asko emango duenik zurekin hitz egin arte.*

Berehala izango da zurekin.

- Bestalde, normala da telefonoz hitz egiten ari garenean beste telefono zenbaki bat eman behar izatea. Gogoratu horrelakoetan bai nork berak esateko, bai telefonoz bestaldean daukagunari lana errazteko hobe dela zenbakiak banan-banan esatea: 945-783469 (bederatzi/lau/bost, zazpi/zortzi, hiru/lau, sei/bederatzi) eta ez (bederatzi/lau/bost, hirurogeita hamazortzi, hogeita hamalau, hirurogeita bederatzi).

Telefonoarekin lotura daukaten hainbat hitz

Transferencia de llamadas = deiak batetik bestera pasatzea

Conferencia a tres = hiruk elkarrekin hitz egitea (hiruko elkarrizketa)

Intercomunicación = interkomunikazioa

Llamada en espera = deia zain izatea

Captura de llamadas en otra línea = beste linea bateko deiak hartzea

Contestador en red en cada línea = sarean eta linea bakoitzean erantzungailua izatea

Desvío de llamadas = deiak desbideratzea

Llamada directa a cada línea = linea bakoitzera zuzenean deitzea

Telefono mezuak hartzeko-emateko oharrak

Mezuren bat hartzerakoan kontuan hartu beharrekoak:

- Solaskidearen izena
- Erakundearen izena
- Deia eguna eta ordua
- Zergatia. Gaia
- Telefono zenbakia
- Solaskideari deitzeko ordurik onena.

Bukaeran mezua errepikatu edo laburtu dakioke solaskideari, hartu duguna zuzena dela baieztatzeko. Oharrak zuzen jaso ditugula baieztatu.

5.2.3.- Hirugarren ariketa

Erregistroa. Telefonozko eta zuzenezko harrera: aldeak eta antzekotasunak.

1.- Aurrez aurreko harremana

- Bideoa entzun
- Transkripzioaren gainean lan egin (ikus 3. eranskina)

2.- Telefonozko harremana.

- Bideoa ikusi.
- Esamoldeei erreparatu (ikus 4. eranskina)

Saia zaitetz bideoan erabiltzen diren esamoldeak azpimarratzen (atal bakoitzean)

Telefonoa hartzean

Bai. Esan!

Amurrioko Udala.Esan!

Nor da?

Amurrioko Udaletxea. Egun on!

Bai? Esan? / Egun on / Arratsalde on/ Gabon

Deiegilearen lehen hitzak

(Izena)

Egun on! Arratsalde on/ Gabon!

X-rekin jarriko nauzu/ X-rekin mesedez

X naiz/X-rekin hitz egin nahiko nuke

Aizu X etxean al dago?

Zer moduz zabilta?

Erantzuna

Noren partez? Berdin/ Zer nahi duzu?
Baita zuri ere / Ondo, esan beharko/ Beti bezala
Hementxe egonean/ ondo / ondo, eta zu?
Bai. Oraintxe jarriko zaitut
Bai. Oraintxe pasatuko dizut deia

Itxoiteko

Itxaron apur bat
Oraintxe esango dizut
Hizketan ari da, itxarongo duzu pixka batean?
Beste lineatik hitz egiten ari da, itxoingo diozu?

Bukatzeke aitzakia

Orain zeharo lanpetuta gaude eta ardura ez bazaizu,
arratsaldean segituko dugu.
Momentu honetan bilera batean dago.
Beno, utzi egin behar zaitut.
Mesedez, deitu geroxeago, orain ez dago eta.
Oraintxe atera da. Arratsaldean deitu beharko duzu.
Beno, orain joan egin behar dut.
Oharren bat utzi nahi duzu?

Bukatzeke agurra

Gero arte bada, agur / Ederki, esango diot
Agur/Adio/Hurrengora arte/ Beste batera arte
Ikusi arte / bihar arte
Berriro deituko dizut
Mila esker deitzeagatik
Egongo gara / nire kontu.

Erantzuna

Agur/adio/berdin/bai/baita zuri ere
Gero arte/Hurrengo arte/Ikusi arte
Bihar arte

5.3.-AZKEN EBALUAKETA

- Demagun hirritar batek Udaletxera deitu duela. Eskema bat osatuko duzu hasierako agurra mantentzetik hasita.
- Rolak gauzatu. Bi pertonaren rola izango dira. Gure kasuan, laneko rola izango du ikasleak. Grabatu egingo da zuzenketa berarekin batera egiteko.

A ikaslea

1. Udaletxeko telefonaria zara.

2. Kulturako diputatuaren idazkari egiten duzu lan, Foru Aldundian.

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuarekin hitz egin nahi du berak. Jarriozu deia.

3. Udaletxeko administrari laguntzailea zara. Telefonoa hartu behar duzu.

4. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean lan egiten duzu. Bilboko Delegaziora deituko duzu hango idazkariarekin hitz egiteko.

B Ikaslea

1. Herriko Osasun Zentruko zuzendaria zara eta X zinegotziarekin hitz egin nahi duzu. Deitu udaletxera.
2. Eusko Jaurlaritzako telefonaria zara.
3. Udaletxeko telefonaria zara. Gaur gaixotu egin zara eta ez zara lanera joango. Deitu lanera eta hitz egin ezazu zeure lankidearekin.
4. Bilboko Hezkuntza Saileko Ordezkaritzan lan egiten duzu idazkari.

6.3.- 3.ikastunitatea (Liburuzaina)

Ikastunitate honekin hasi baino lehen lanpostuaren ezaugarriak ikusiko ditugu:

Administrazio atala: Zerbitzu orokorrak – komunitatea – hirigintza

Lanpostuaren izena: Liburuzaina

Izaera : Gizarte izaera

Taldea: B

Lanpostuaren hizkuntz eskakizuna: 3

Langilearen hizkuntz eskakizuna: 3

Derrigortasun data: 1999/09/28

3.1.- HELBURU OROKORRA

- Ulegarritasuna areagotzeko estrategiak lantzea irakurle zerbizua emateko.

3.2.- HELBURU ZEHATZAK

- Solasaldi informal batetik zenbait informazio inferitza.
- Literatur testuen irakurketa bideratzeko, liburuen mailegu-zerbitzua eratu eta arautzea.
- Araudi bat idaztea, testu-mota horren ezaugarri formala errespetatuz.
- Proposamenak eztabaidatu eta adostutako formula bat aukeratzea.

3.3.- AUTOEBALUAKETARAKO HASIERAKO ARIKETA

- Prozedura

Urte osoan indarrean egongo den literatur liburuen mailegu-zerbitzuaren funtzionamendua arautzea, ohar baten bidez bazkideei jakinarazteko.

3.4.- HIPOTESIAK

- Zenbait informazio inferitzeko zailtasunak ditu ikasleak.
- Oztopoak ditu komunikatu nahi duena era formalean idazteko.
- Entzunketa eta irakurketa estentsiboaren estrategiak ez ditu ezagutzen.

3.5.- PROZEDURA

Irakurzaletasunaz mintzatuta, zenbait ondorio aterako ditugu. Ariketatxo batzuen bitartez ikasleak irakurtzean izaten dituen zailtasunak mintzatuta irakurle orok erabiltzen dituen hobeto ulertzeko trukoez hausnartzeko.

(musika entzun, telebista ikusi).		
Telebista irakurketaren etsaia da, denbora kentzen digu eta.	X	
Gaur egun, batez ere, helburu ludikoarekin irakurtzen dugu, hau da, ondo pasatzeko.		X
Askotan literatur liburuen zatiak baino ez ditu irakurtzen.	X	
Kasu gehienetan gutxi irakurtzen dugu gutxi ulertzen dugulako.	X	
Liburu batek gustura uzten gaituenean, aseta geratzen gara eta ez dugu denbora luze batean beste ezer irakurtzeko gogorik izaten.		X
Musika asko entzuten dugunok denbora gutxiago dugu irakurtzeko.	X	
Literatura ondo pasatzeko irakurtzen dugu, besteren esperientziaren berri izan eta zoriotsuago izateko.	X	
Autorea ezagutuz gero, gusturago eta errazago irakurtzen dugu.	X	
Literaturaren alderdi estetiko-ludikoa interesatzen zaigu, ez testuaren azterketa linguistikoa.	X	
Zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta joera handiagoa daukagu testu errealistak irakurtzeko.		X
Gizonezko/emakumezkoen irakurtzeko gustuak gizarte-rolak lotuta daude, adibidez, gizonek konpetitiboagoa dutenez, ekintza-nobelak aukeratzen dituzte.	X	
Badaude klasiko batzuk derrigorrean irakurrita eduki behar ditugunak, adibidez, El Quijote.	X	
Aukera egiterakoan asko begiratzen diogu liburuaren itxurari (lodiera, letraren neurria, irudiak eta abar.).		X
Liburuak ukitu eta lehendabiziko orriak irakurrita bakarrik ezin dugu informazio asko atera liburuari buruz.		X

Ondoren ETBn gai horretaz egindako solasaldi bat entzungo duzu. Bertan aurreko puntuan hizpide izan ditugun puntu berberak agertuko dira. Beraz, esaten dituzten gauza guztiak aintzat hartuta gaur egungo irakurle estandarren gutxi gorabeherako profila osatzen ahaleginduko gara; betiere aurrekoikusitakoarekin alderatuz. (ikus 5. eranskina)

Eta orain deigarrienak iruditzen zaizkigun puntuak kontuan hartuta, bizpahiru esalditxo idatzi konklusio gisa.

4.- Laugarren ariketa

Mahainguruan esandako hau ekarriko dugu berriro gogora: “ Kasu gehienetan gutxi irakurtzen dugu, gutxi ulertzen dugulako”. Eta ondokoa galdetu diogu ikasleari: gauza bera gertatzen zaizu? Zailtasun zerranda idatziko duzu

Adib: Euskal kulturari buruzko aipamenek argumentuaren haria galarazten didate

5.- Bosgarren ariketa

Irakurle denok erabiltzen ditugu trukoak hobeto ulertzeko irakurtzean. Hizkuntza ikasle hauentzat ere premiazkoak dira. Irakur ezazu zertaz baliatzen diren ulermen-zailtasunei aurre egiteko.

- Nire ulertzeko teknika hauxe da: lehendabizi globalitatean ulertzen saiatzen naiz. Horrela ulertu ondoren, hobeto erreparatzen diet forma batzuei euren testuinguan, hobeto ulertzeko edo zelan erabiltzen diren ikusteko.
- Irakurtzen dudanean, lehenengo izenburuari eta argazkiei edo grafikoei...begiratzen diet, horrela badakit gutxi gorabehera zeri buruz arituko den. Hau da, ideia batekin hasten naiz irakurtzen, eta horrela errazago ulertzen dut.
- Ni honetaz konturatu naiz: gaia zenbat eta ezagunagoa izan, hobeto ulertzen dudala. Horregatik, orain gai desberdinen inguruko informazioa edukitzen saiatzen naiz.
- Behar-beharrezkoa dut testuinguru esanguratsua, bestela ez dut ezer ulertzen.
- Zerbait irakurtzen dudanean, ez diet ulertzen ez ditudan berba guztiei erreparatzen, ulertzeko garrantzitsuak direnei bakarrik. Irakurri dudana ulertzen ez badut, ordea, galdetu edo hiztegian begiratzen dut.
- Lehen zera uste nuen: irakurtzea beharrezko lana zela. Orain, aldiz, taldeka ere egin daitekeela konturatu naiz. Sarritan, hobeto ulertzen laguntzen dit ikaskideen arteko lan horrek.
- Hitz edo formaren bat ulertzen ez dudanean, beti saiatzen naiz deduzitzen. Horretarako, egoera eta testuinguru linguistikoa hartzen ditut kontuan. Hau da, hitza ulertzea bilatzen ditut.

Eta zuk erabiltzen al duzu horrelako estrategiaren bat ulertzeko?. Zein?. Eta, hauetaz gain, besteren bat?.

6.- Seigarren ariketa

Orain badakizu nolako irakurlea zaren eta baduzu irakurtzean erabili ohi diren trikimaluen berri ere. Orain, mailegu-zerbitzua antolatuko duzu, hau da, irakurritako liburuen gaineko iritziak nola trukatu, irakur-fitxetan, zer jaso etb.

Mailegu-zerbitzu bat antolatzeko arauotako zein hartuko lituzke araudi egoki batek eta zuk zein gaineratuko zenuke?

1. Ezinbestekoa da euskalduna izatea.
2. Irakurritakoaren berri eman ez kontrol-fitxa betetzea nahitanahiezkoa da.
- 3.-Idatziko diren pasarteak. edozein hizkuntzatan egonda ere, derrigorrez euskaratuko dira.
4. Elkartekideek gomendatzen dituzten liburuak ez dira irakurtzeko zailak izango.
5. Hileko bi liburu gutxienez irakurri beharko dira.
6. Hamman Komuneko Literatur Elkartearen beste betebeharrak idaztea izanik, irizpide jakin baten arabera aukeratuko dira liburuetakoko pasarteak.
7. Ingelesez idazten jakin behar da.
8. Elkartekide izateko gutxieneko adina 18tik 99 urtera bitartekoa da.
9. Gaia poesia sozialera mugatuko da.

10. Luzaezina da liburu-maileguaren epea: 15 egunekoa, asko jota

7.- Zazpigarren ariketa

Araudia idatziz formulatzen lagunduko diogu ikasleari hasierako ebaluaketan produzitutakoa kontuan hartuta. Formularik egokiena adostuta, behin betiko araudian jasotzeko fitxa izango dugu lagungarri.

1.- Liburuaren fitxan zein datu jarriko dituzu (egilea, orrialde-kopurua, sinopsia...)?
Presta ezazue fitxa eredu (Adibidea ¹¹ aztertu)

Idazlea:

Izenburua:

Lib. Erref.

ARGITALETXEA:

NEURRIA:

ORRIALDEAK

GAIA:

URRATSA:

2.- Mailegu-sistemaren funtzionamendua:

2.1.- Zenbat denboratarako egingo die maileguak?. Zigorak?.

2.2.- Irakurleen iritziak ere beharrezkoak dira askotan. Horretarako koadro bat prestatuko duzu. Nahikoa duzu kartulina (hobeto zuria, iritzi-koloreak hobeto ikusteko) eta errotuladore batzuk. Hona hemen adibidea:

¹¹ Legazpiko Udal Euskaltegia

Kontrol eta iritzi-orria¹²

- Ona, gustukoa
 Ez gatzik, ez piperrik
 Ez da gustukoa

Liburuak (izenburuak)

- 1.- OBABAKOAK
 2.-.....
 3.-.....
 4.-.....
 5.-.....
 (...)

<i>Ikasleak</i>	<i>Iritziak</i>		
Iñigo	Liburu zenbakia: Kolora: <input type="checkbox"/> Komentarioa:		
Nerea	Liburu zenbakia: Kolora: <input type="checkbox"/> Komentarioa:		
Maddalen	Liburu zenbakia: Kolora: <input type="checkbox"/> Komentarioa:		
Natxo	Liburu zenbakia: Kolora: <input type="checkbox"/> Komentarioa:		
Jone	Liburu zenbakia: Kolora: <input type="checkbox"/> Komentarioa:		
	Liburu zenbakia: Kolora: <input type="checkbox"/> Komentarioa:		

- 3.- Liburuaren zainketari buruzko oharrak (forratu behar diren ala ez, etab.)
 4.- Liburuaren kokapen fisikoa (non egongo diren liburuak ?)
 5.- Urtean zeharreko jarraipena nola bideratu.
 6.- Esperientziaren ebaluazioa nola egin: (norberaren ebaluazioa / taldearen ebaluazioa)

3.6.- AZKEN EBALUAKETA

Amaieran feedbacka egingo dugu ikasleak produzitutakoa geuk emandako eredu batekin alderatuz.

¹² Joanba Bergarak Irakurtzeko zaletasuna suspertzen, In: Zutabe 18: 122-126 orr. Proposatutako ereduaren aldagaia da.

Zure udaleko liburutegian bazkide guztiek, denon hobe beharrez, bete beharreko arauak aditzera emateko oharra idatzi beharko duzu.

(...)

Liburuen eta aldizkarien mailegu-arauak

AMURRIOKO UDALA

Bazkide-txartela

- Mailegu-zerbitzua erabiltzeko, bazkide-txartela aurkeztu behar da.
- Bazkide-txartela dohainik ematen da; baina txartela galdu edo hondatuz gero, hiru euro (3 euro) ordaindu beharko ditu bazkideak.
- Bazkide bakoitza da nor bere txartelaren erantzule. Txartela beste norbaiti utzi, eta beste horrek okerrerako erabiliko balu, bazkideak berak ordaindu beharko ditu bere utzikeriak eragindako kalteak.
- Bazkide-txartelak berarekin dakar, nahitaez, arau guztiok bete beharra.

Maileguak

- Bi liburu eraman ahal izango dira, gehienez, aldiko.
- Bi aldizkari eraman ahal izango dira, gehienez, aldiko. Aldizkari atera berririk ezin da eraman, atera berriagoa iritsi arte.
- Bestek eramandako liburu, aldizkari eta abar eskuratzeko txanda hartu ahal izango da, bai liburutegian bertan eta baita telefonoz ere.
- Bazkideen esku dago Bazkideen eskariak delako orria betetzea, besteak beste, aukeran dauden liburu, aldizkari eta abarren zerrenda osatzeko.
- Liburutegitik eramandako zernahi galtzen edo hondatzen duenak ordezeko berria erosi beharko du hilabete baino lehen.

Epea

- Liburuak itzultzeko epea hogeit egunekoa da (20 egun) eta behin bakarrik luzatu ahal izango da. Luzapena eskatu ahal izango da, bai liburutegian bertan eta baita telefonoz ere.
- Aldizkariak itzultzeko epea hiru egunekoa da (3 egun): epe luzaezina.
- Itzultzeko epea amaitu ondorengo atzerapenak zigortu egingo dira. Oso berandutzen denari edota beti berandu dabilenari, bazkide-txartela kendu egingo zaio, eta mailegu-zerbitzua erabiltzeko aukera ukatu.

Amurrio,

.....(e)ko.....(ar)en.....a

Alkatea

1. Eranskina (langilearekin izandako elkarrizketa egituratua)

**AMURRIOKO UDALA EUSKARA
ERABILERA**

Elkarrizketa irekia (erdi-egituratua)

Egun on!. Dakizunez, ikerketatxo bat osatzen ari gara. Euskarari buruzko datu batzuk jaso nahi ditugu. Hasieran, zuri buruzko datu batzuk galdetuko dizkizut eta geroago euskara eta lanari buruzko galdera batzuk egingo dizkizut. Ados?.

1.- LANGILEAREN DATUAK

- Nola duzu izena?
- Noiz jaio zinen?
- Zein da zure lanpostua?
- Jendeaurrean lan egiten duzu?
- Zein da zure lanpostuaren hizkuntza eskakizuna? Eta zuk zein duzu? Noiz atera zenuen?

2.- EUSKARA

2 a.- Euskara ikasten ari zara?

bai

ez (2 d galderara pasatu)

2 b.- Zein urratsetan? (bai erantzun badu)

Euskalduntzea

Alfabetatzea

4. H E

1	1	1
2	2	
3		
4		
5		
6		
7		
8		
9		
10		
11		
12		

2 d.- Orain baremo bat emango dizut (ezer ez, hitz batzuk, zertxobait, nahiko ongi eta ongi) eta zuk kategoria bat aukeratu beharko duzu. Oro har, zenbat euskara dakizu?

	Ezer ez	Hitz batzuk	Zertxobait	Nahiko ongi	Ongi
Ulertu	1	2	3	4	5
Hitz egin	1	2	3	4	5
Irakurri	1	2	3	4	5
Idatzi	1	2	3	4	5

2 e.- Aurrekoan “ hitz egin” nahiko ongi edo ongi erantzun baduzu, ondorengo erantzun, bestela hurrengo galderara pasatuko gara.

Zein hizkuntzatan duzu erraztasun handiagoa ondorengo gaiei buruz hitz egiteko?

	Lanaz	Gai pertsonalez
Gaztelaniaz errazago	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Berdin euskaraz eta gaztelaniaz	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Euskaraz errazago	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

3.- Harreman sarea eta hizkuntza erabilera

Zurekin, lan-harremana izaten duten lankideen euskara ezagutzaren gaineko galderak:

3.1.- Zenbatek dakite euskaraz hitz egiten?

	Inork edo ia inork ez	Erdiek baino gutxiagok	Erdiek	Erdiek baino gehiagok	Denek edo ia denek	Ez dagokio
1 Eguneroko zuzeneko harremana duzun maila bereko lankideen artean	1	2	3	4	5	6
2 Zurekin zuzeneko harremana duten nagusiekin	1	2	3	4	5	6
3 Zuzenean zure menpe dauden langileen artean	1	2	3	4	5	6

3.2.- Normalean zein hizkuntzatan hitz egiten duzu lanean?

	1 Beti gazt.	2 Gazt. eusk. baino +	3 Gazt. eusk. hainbat	4 Eusk. Gazt. Baino +	5 Beti Eusk.	6 Ez dagok.
1.- Ataleko lankideekin.....	1	2	3	4	5	6
2.- Administrazio Orokorrekoekin....	1	2	3	4	5	6
3.- Bulego Teknikokoekin.....	1	2	3	4	5	6

3.3.- Normalean zein hizkuntzatan hitz egiten duzu lankide euskaldunekin?

	Beti gaztelani az	Gaztelani az euskaraz baino gehiago	Gaztelani az eukaraz hainbat	Euskaraz gaztelani az baino gehiago	Beti euskaraz	Ez dagokio
1 Eguneroko zuzeneko harremana duzun maila bereko lankideekin	1	2	3	4	5	6
2 Zurekin zuzeneko harremana duten nagusiekin	1	2	3	4	5	6
3 Zuzenean zure menpe dauden langileekin	1	2	3	4	5	6

Orain zurekin harremana duten herritarrei buruz hitz egingo dugu

3.4.- Herritarrek zuregana jotzen dute? Haiekin duzu harremana? (Ahozkoa edo idatzia) Nolakoa da? Baduzu haiekin hitz egiteko arazorik? Nolakoa da? Zein kasutan? (...)

3.5.- Normalean zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zurekin harremana duten herritarrekin?

	1 Beti Gazt.	2 Gazt. eusk. baino +	3 Gazt. eusk. hainbat	4 Eusk. Gazt. Baino +	5 Beti eusk.	6 Ez dagok.
1.- Telefonoz.....	1	2	3	4	5	6
2.- Leihatila aurrean.....	1	2	3	4	5	6
3.- Azalpen laburrak ematerakoan..	1	2	3	4	5	6
4.- Azalpen luzeak ematerakoan.....	1	2	3	4	5	6

3.6.- Zertan diharduzu herritarrekiko harremanetan?

Ahozkoa

- Megafonia
- Erantzungailu automatikoa
- Irrati / tel. iragarki hizkuntza
- Ekitaldi publikoetako hizkuntza
- Leihatilako harrera hizkuntza
- Telefonoko hasierako harrera
- Bulegoan (barneko lana)

- Telefonoaren bidezko harremana
 (.....)

eta idazkietan?

Idatzia

- Bandoak
 Web orriak
 Jakinarazpenak, ziurtagiriak, inprimakiak...
 Eskutitzak, akta laburrak, prentsa oharra, iragarkiak...
 Dekretuak, ordentzak, erreglamentuak...
 Hizkuntza paisajea
 Argitalpenak
 Biztanleriaren idatzitako sarrerak
 (.....)

3.7.-Zein hizkuntzatan idazten dituzu testuok?

	1 Beti gazt.	2 Gazt. eusk. baino +	3 Gazt. eusk. hainbat	4 Eusk. Gazt. Baino +	5 Beti eusk.	6 Ez dagok.
1.- Atal barruko inprimakiak.....	1	2	3	4	5	6
2.- Jendearentzako inprimaki eta jakinarazpenak.....	1	2	3	4	5	6
3.- Atal barruko txostenak..... (2-4 orrikoak)	1	2	3	4	5	6
4.- Herritarrentzako txostenak.....	1	2	3	4	5	6

3.8.- Euskara erabili nahi duzunean oztoporik aurkitzen duzu?

- bai (datorren galdera egin)
 ez (3.10 galderara pasatu)

3.9.- Oztopatze horretan batzuk esango dizkizut zuk eta bi aukeratu beharko dituzu

- Euskara behar bezala ez menperatzea
Euskaraz ere ekoiztekotan lan bikoitza egin behar izatea
Terminologia teknikoaren inguruko zalantzak , aholkuak eta baliabide ezak
Ohitura aldatzeko zailtasunak (adib: lehendabizikoz pertsona batekin

erabilitako hizkuntza ondoren aldatzea)

Lankideekin euskara maila ez ezagutzea

Inguruko langileek euskaraz ez jakitea

Besterik bururatzen zaizu? Zein?.....

3.10.- Lan jardun guztietan euskara ulertzea / sortzea berdin kostatzen zaizu? Ahozkoan eta idatzian batzuk esango dizkizut eta zuk gehien kostatzen zaizkizun bi aukeratu.

Ahozkoa

- Megafonia
- Erantzungailu automatikoa
- Irrati / tel. iragarki hizkuntza
- Ekitaldi publikoetako hizkuntza
- Leihatilako harrera hizkuntza
- Telefonoko hasierako harrera
- Bulegoan
- Telefonoaren bidezko harremana
- Lan bilerak
- (.....)

Idatzia

- Bandoak
- Web orriak
- Jakinarazpenak, ziurtagiriak, inprimakiak...
- Eskutitzak, akta laburrak, prentsa oharrak, iragarkiak...
- Dekretuak, ordentzak, erregelamentuak...
- Hizkuntza paisajea
- Argitalpenak
- Biztanleriaren idatzitako sarrerak
- (.....)

3.11. Euskaraz hitz egin behar duzunean edo idatzi behar duzunean zer kostatzen zaizu gehiago. Batzuk esango dizkizut eta zuk bi aukeratu beharko dituzu.

- Zuzentasuna (aditzak, egiturak, deklinabidea...)
- Aberastasuna (hiztegiak eza...)
- Ortografia ez menderatzea
- Komunigaitasuna (lokailuak erabili, kohesioa lortu...)
- Benetako eredurik ez izatea
- Nora jo ez izatea (zalantzak argitzearen)
- Behar bezalako formakuntzarik ez izatea
- (.....)

3.12.- Zure ustez, zerk lagunduko lizuke euskara gehiagotan erabiltzen?

Esan zure ustez, inportanteena.

- Eskolak jasotzeak (hau komenta daiteke: udaletxean edo udaletxetik kanpo)
- Eredu egokiak eskuratu ahal izateak
- Zuzenketa-zerbitzua izateak
- Itzulpen zerbitzua izateak
- Beste bat (.....)

3.13- Zer egiteko prest zeundeke? Bloke desberdinetan izango da eta zuk esan aipatuko dizkizudan bloke bakoitzetik bat. Euskalduntzeari buruz hitz egingo dugu lehendabizi:

- Euskalduntzeko ikastaro trinkoa, lanorduz kanpo.
- Euskalduntzeko ikastaro trinkoa, lanordu eta lanorduz kanpo.
- Euskalduntzeko ikastaro trinkoa, lanorduetan.
- Ez dagokio.

Eta trebakuntzari buruz ari bagara?

- Trebakuntza ikastaroa, lanorduz kanpo.
- Trebakuntza ikastaroa, lanordu eta lanorduz kanpo.
- Trebakuntza ikastaroa, lanorduetan.
- Ez dagokio.

Edota birziklatze ikastaroa egiteko prest egongo zinateke?

- Birziklatze ikastaroa, lanorduz kanpo.
- Birziklatze ikastaroa, lanordu eta lanorduz kanpo.
- Birziklatze ikastaroa, lanorduetan.
- Ez dagokio.

3.14.- Gaur egun mikroinformatika garaian bizi garela, tresna hauek ezinbestekotzat hartzen ditugu. Zure lanpostuan badago informatika arloan euskaraz agertzen den ezer? Zein?

Eta orain galdera bat luzatuko dizut. Zure ustez, zure lanean, teknologia berriek lagunduko lizuke lanean euskara gehiagotan erabiltzeko? Ondoren, batzuk irakurriko dizkizut eta zuk bat esan.

- Bai, asko gainera
- Bai, baina ez da ezinbestekoa
- Ez diot garrantzi handirik ematen
- Beste bat (.....)

3.15. Pentsatzen dut jadanik Udalak euskararen erabilera planaren bideragarritasun txostena onartu eta Euskara Normalizatzeko Planaren diseinua martxan daukan berri izango duzula. Ezta? Nik horretaz esaldi batzuk esango dizkizut eta zuk esan beharko didazu ea konforme zaude ala ez. Lehendabizi ideia batzuk esango dizkizut eta aipamen bakoitzean pentsatzen duzuna esango didazu.

- 1.- Guztiz konforme.
- 2.- Nahiko konforme.
- 3.- Ez alde ez kontra.
- 4.- Nahiko kontra.
- 5.- Ez dakit / ez dut erantzuten.

1 Guztiz konfor	2 Nahik Konfo rme	3 Ez alde ez kontra	4 Nahik kontra	5 Ez daki / ez du erantz
-----------------------	----------------------------	------------------------------	----------------------	-----------------------------------

Zuen erakunde euskara gehiago erabiltzeko plana abian jartzea.	1	2	3	4	5
Euskara ez dakitenentzat euskalduntzeko aukerak ugaritzea.	1	2	3	4	5
Euskaraz dakitenek erabilera apurka-apurka handitzea (trebakuntza eta abar).	1	2	3	4	5
Formazio eta birziklatze ikastaroak euskaraz ere egiteko aukera izatea.	1	2	3	4	5
Ohiko dokumentazioa, inprimakiak eta programa informatikoak euskaraz ere izatea.	1	2	3	4	5

Bada, amaitu beharrean gaude. Euskararen erabileraren gaineko ezer erantsi nahi duzu?
Mila esker parte hartzeagatik.

2. Eranskina (elkarrizketaren gidoia)

Lehen esan den legez, elkarrizketa irekia erabili zen. Elkarrizketak galdetegia dauka eta horretan oinarritzen da gidoia.

Hau litzateke elkarrizketaren gidoia:

- Elkarrizketatua gaian sartu
- Norberaren datu zehatzak eskatu
- Euskararen gaineko norberaren datuak
 - Euskara eta ikasketak
 - Gaitasun maila
- Euskararen erabilera eta harreman sarea
 - Lankideen ezagutze-maila eta haiekiko harremana
 - Herritarrekiko hizkuntzaren erabilera
 - Laneko testuen hizkuntza
 - Oztopoak
 - Litezkeen konponbideak
- Euskara teknologia berrietan. Erabilera eta egokitasuna.
- Euskararen erabileraren inguruko jarrera.
- Informazio berria sartzeko aukera eman eta agurra.

3. Eranskina (Herritar batekin zuzenezko elkarrizketaren transkripzioa)

Ariketa honetan, leku batetik bestera joateko ibilbideaz instrukzioak ematea eta ulertzea landuko dugu. Pertsonaiak hauek dira: herritarra, Maite izeneko idazkaria eta Joxe izeneko Udaleko langilea. Hirurak Udaletxeko informazio leihatilan daude.

Hir.- Egun on

Mai.- Baita zuri ere.

Hir.- Hara... kanpotarra naiz. Beno, orain artean. Hemendik aurrera amurriarra izan nahi nuke.

Mai.- Hemengo erroldan zaude?

Hir.- Horretara nator... ez... Izan ere, etxea aspaldian dugu hartuta, baina bizitzera orain dela gutxi etorri gara.

Mai.- Hortaz... errolda Amurrion egin nahi duzu.

Hir.- Horixe!

Mai.- Inprimakia emango dizut.

Hir.- Orain bete behar dut?

Mai.- Ez da beharrezkoa, gizona. Hala ere, datu guztiak hemen baldin badituzu...

Hir.- Baietz uste dut. A. Ez! Emaztearen nortasun-agiriaren zenbakia falta dut.

Mai.- Hortaz, hobe duzu etxera eraman eta han bete Zalantzak... zalantzarik baduzu, hona deitu. Telefonoa hor duzu... idatzia.

Hir.- Aizu, ba al dago... esango al didazu herrian liburutegirik badagoen?

Mai.- Bai. Ba omen dago. Ni hemen idazkari berria naiz eta gaur bertan hasi naiz hemen lanean.

Jox.- Horixe dagoela! Kultur etxean dago.

Jox.- Eginberria da. Horregatik ez duzu ezagutuko.

Hir.- Egia esateko/ ez... Eta hara joateko nola...?

Jox.- Hara! Udaletxetik irten eta ezkerretara jo. Lehendabiziko kalean zehar abiatu eta ehun bat metrotara parketxo baten erdian baserri itxurako etxe bat dago. Horixe duzu kulturetxea.

Hir.- Irekia egongo da, ezta?... Orain.

Jox.- Hobe duzu orain ez joatea. Ordu honetan eskolako umeak han izaten dira eta...

Hir.- Bai, bai. Ondo dago hori jakitea. Bide batez... ordutegia esango al didazu?

Jox.- Ohizkoa. Goizez bederatzietatik ordu bata arte. Arratsaldean hiruretatik zazpiak arte.

Larunbatean itxia duzu.

Hir.- Ederki! Mila esker.

Jox.- Ez horregatik, agur.

4. Eranskina (Telefonoren bidez izandako elkarrizketaren transkripzioa)

Ariketa hauetan, telefonean erabiltzen den zenbait diskurtso-funtzio landuko da; hala nola, hasierakoak eta bukaerakoak. Egoera honetan pertsonaiak haxek dira: Julia izeneko Udaleko erregistroko aministratzaile laguntzailea, Miren izeneko Udaleko teknikaria eta Joseba ur-patzuegoan aritzen dena.

Gidoia

Jul.- Itxaron apur batean! Bai. Esan!

Mir.- Juli.

Jul.- Bai. Bai. Esan.

Mir.- Polikiroldegira deika eta deika ari naiz... komunikatzen ematen dit beti. Ba al dute beste zenbakirik?

Jul.- Oraintxe esango dizut, ea...

Jul.- 113240.

Mir.- Ez. Ez. Hori badut.

Jul.- 113395.

Mir.- Konforme. Beste kontu bat... Joseba Berriotxoaren berririk ba al dago?

Jul.- Berriotxo... Berriotxo... ur-patzuergokoaz ari zara, ezta?

Mir.- Hala da. Bai.

Jul.- Ba... hamabiak laurden gutxietarako eman genion ordua, baina oraindik ez da azaldu, antza.

Mir.- Datorrenean, esaiozu sartzeko.

Jul.- Konforme.

Mir.- Eta, elkarrekin gauden bitartean, ez iezadazu deirik pasa, mesedez.

Jul.- Ederto.

Jos.- Aizu, barkatu!

Jos.- Ur-partzuergoko ingeniaria naiz. Oker ez banago, hamabietarako eman zenidaten ordua alkatearekin hitz egiteko.

Jul.- Nola duzu izena mesedez?

Jos.- Joseba Berriotxo.

Jul.- Hamabiak laurden gutxietarako zenuen ordua. Itxaron apur batean.

Mir.- Bai. Esan.

Jul.- Joseba Berriotxo Jauna zain daukazu.

Mir.- Sartzeko esan, faborez.

Mai.- Sar zaitetz, Jauna. Alkatea zain dago eta.

5. Eranskina (ETBko bideo pasartearen transkripzioa)

BIDEO-PASARTEA: MAHAINGURUA

Iraupena: 18'30"

ANDONI ARAMAIONA

MARI JOSE OIARZABAL

PEIO ETXEGUREN

MARIBI LEGORBURU

A.A. Ba, Durangoko liburu eta disko azokaren bueltan hango munduarekin zerikusirik duen gai bat aukeratu dizuegu gaurko LAGUN ARTErako: Irakurketaren gaia. Askotxo izan gitezke gure liburu edo liburu sorta eskuetan etxeratu garenak baina orain beste ezkutuko lan hori, lan pertsonal hori geratzen zaigu. Liburu horiek irakurtzea.

Ba, ariketa horren zer-nolakoak aztertu nahi genituzke gaurko LAGUN ARTEAN. Hau da, gure irakurketa zaletasunak. ohiturak, jokabideak eta abar. Zer irakurtzen dugun, zenbat irakurtzen dugun, zerk eraginda eta abar. Horixe planteatzera gatoz irakurle on izateak dituen bentajak aldarrikatuz.

Itxuraz aldatu zaigun platoan, hiru solaskide ditugu. Bakoitza bere sailean pertsona aditua. Gurekin, lehen lehenik Mari Jose Olaziregi, irakaslea, hizkuntza irakaslea, eta, horretaz gainera, irakurketari buruzko tesia bat eskuartean duena. Gabon, Mari Jose.

Maj. Gabon!

A.A. Emakumea ere gure bigarren gonbidatua: Maribi Legarra.
Literatura bera ez ezik irakurlearen ohiturak ere ondotxo ezagutzen dituen liburu dendaria. Gabon Maribi.

MARIBI Gabon!

A.A. Eta azkenik Pello Ellakuria, Udako ikastaroen zuzendaritzan ezagutzen dugu, baina gaur gaurkoz Euskadiko Eskolako Kontseiluburua. Gabon. Pello.

PE. Gabon, bai.

A.A. Irakurketa-kontuak, beraz, gaurko LAGUN ARTEAN. Hasieran aipatutako irudi horren aurrean jar gitezke. Hau da, liburu bat edo beste, edo gehiago, liburu-sorta bat eskuetan dugula etxeratuko ginen gutako asko. Zer gertatuko da, ordea, orain liburu horien ibilbidearekin. Azken batean, irakurriko al ditugu ala hortxe geratuko dira apalen batean utzi ditugulako, gero horiez ahaztu garelako, hortxe geratuko dira umezurtz. Mari Josek du hitza. Liburu baten atzean ez ornen dago irakurle bat. esaten zenuen.

Ma j. Bai. bueno. Erantzuna pentsatzen dut topiko bihurtu dela gaur egun, ezta? Beti entzun izan dugu gure artean, ba, gutxi irakurtzen dela eta hau ez dela kontu berria. Egia esan, ba, mende honetan zehar, jada mende

hasieratik, adituak oso kezkatuta egon izan dira irakurketa urritasunarengatik, ezta? Orduan, alde

honetatik, bai, noski. erosle baten atzean ez dago beti irakurle bat. Hor badaude, gainera, oso ikerketa bitxiak, zentzu honetan egin direnak eta esaten da, ba, Espainian erosten duten... liburu bat erosten duen %60ak soilik irakurtzen duela. Portzentaia hori izugarri igotzen dela Alemanian. alegia, erosleek gehiago irakurtzen dutela. eta nabarmen jaitsi, ba, hirugarren munduko edo, ez dakit, Hegoameriketako hainbat estatutan. Bueno, hau kontu zaharra da. Nik uste dut argi dagoela gure aisialdian beste hainbat jardura direla nagusi, ezta? Hemen, inguruko herrialde guztietan, Europan, gaur egun irakurketak nahiko leku eskasa dauka. Gailentzen dena aisialdi pasiboa, hau da, telebista ikustea edo musika entzutea, eta irakurketa eta beste hainbat ekintza, ba, nabarmen urriago praktikatzen dira, ezta? Arrazoiak? Ba, pentsatzen dut asko daudela eta nahi baduzue aurrerago edo hitz egingo dugu honetaz. Eta gero bereziki ere daude desberdintasunak sexuaren arabera. Hau da, gizonak kirolzale eta bideozaleagoak dira, emakumezkook gehiago irakurtzen dugu, eta zinema eta, ba, musika ere badirudi, ba, gehiago eregustatzen zaigula. Bueno, datu ezagun samarrak dira. Orokorrean, eta bukatzeko, ba Euskal Herrian egin diren hainbat inkestetan, ba, badirudi, bereziki Komunitate... Euskal Komunitate Autonomoan %40ak ez duela inoiz libururik irakurtzen urtean eta kopuru hau nabarmen igotzen da estatuan, espainiarren %50ak ez baitu liburu bat ere irakurtzen urtean, edo espainiarren %20ak ez baitauka liburu bakar bat etxean.

MARIBI Dena dela, telebistaren inguruan topiko bat dago nahiko zaharra eta ezaguna. Hau da, pentsatzen da telebista dela liburuaren etsaia, edo hori bereziki 60. hamarkadan halaxe defendatzen zen eta ez du zertan izan behar telebistak irakurketaren etsaia, telebista ona bada, noski. Beste kontu bat izango litzateke daukaguna... daukagunak irakurtzaletasunak bultzatzen duen ala ez. Dudarik ez dago ezetz. Baita ere esan beharrekoa iruditzen zait... esan beharrekoa da denbora-arazoa ere badela, eta denbora hori, ba, askotan telebistak, ba, kendu egiten diola, ez dago denb...

Zein liburu aukeratzen den hori askotan funtzezkoa da eta gero, beste aldetik, orain dela gutxi egon da maratoni bat, adibidez, Gasteizen eta pasatu dituzte, ez dakit ziren 24 ordu edo irakurtzen. Eta ume bati galdetzen zioten gero, aizu, eta zuri hizkuntza, zer... ondo... zergatik iruditzen zaizu irakurri behar duzula? Eta esaten zuen: ba nere hitz egiteko, zera, bokabularioa, eta, bueno, hitzak eta hazteko, eta handiagoa izan dezadan, ezta? Ez zuen inondik inora aipatzen ondo pasa...

P.E. Ondo pasatzeko.

MARIBI Bai, hori da. Nik uste dut hor dagoela.

Mari Jose Hori, aldaketa hori, kurioa da, eh? Gaur egunean Frantzian,

esate baterako, oso ikerketa interesgarria egin zen unibertsitarien artean, ezta? 15.000 unibertsitarien artean. Ea zer irakurtzen zuten eta zergatik, eta ikusten da argi aldatu dela irakurketaren kontzeptua bera. Hau da, plazerrez irakurtzen duen oso jende gutxi dago, gaur egun. Irakurketak helburu formatzailea dauka, edo informatzailea. Irakurtzen dugu, bereziki gazteek, ba, gehientxoenek seguraski, entretenitzeko, baina oso portzentaia altu batek bere hizkuntza-maila hobetu eta kultura hobetzeko. Eta gero, beste fenomeno bat ematen ari dena ez direla testuak, liburuak osorik irakurtzen, hau da, gero eta gehiago ematen da...

P.E. Kapitulu bat,

Mari Jose Kapitulu bat, bai... selektiboagoa. Edo kontsultazko irakurketa da momentu honetan gailentzen dena, ezta?

P.E. Baina beste puntu bat bada hor, eskolan bertan irakurtzeari ekiten badiogu azken momentuan ikasleak gero eta erraztasun gehiago dauka eta gehiago ulertzen du. Ze, azken momentuan gertatzen dena da, zuk telebistan ikusten duzun, daukazun irudiekin, horko mezua jaso egiten duzu. Baina liburuak ateratzen duzu, irudiak zuk jarri behar dituzu, eta ze loturak egin daukazunarekin ulertzen duzu edo ez duzu ulertzen. Baina eskolan, nik uste dut, azkarregi irakurketa ondo ikasitzat ematen da. Eman dezagun, adibidez, 7-8 urtekoekin ari garela, ba, irakurketa lantzen. Eta esaten dugu, bueno! Jada irakurtzen dute. Zer irakurtzen dute? Jarraitu egin beharko nuke irakurgaiak ikasten 40 urterekin, nik 53 dauzkat eta oraindik, uste dut, zerikasi asko daukadala. Eskolak ez balu utziko hori eta ez bakarrik hizkuntza aberasteko baizik eta gauzak ikasteko, formatzeko eta ondo pasatzeko ere bai. Nik etxean ikusi dut: baina, zuek ez duzue ondo pasatzerik liburu batekin? Ba... Morrek zer esan nahi du? Ohitura ez dela irakurtzearena. Eta azken momentuan zaila egiten da gutxi irakurtzen ba... gutxi ulertzen bada, gutxi irakurtzen da. Zenbat eta gutxiago irakurri gutxiago ulertzen da, erraztasun gutxiago dago.

Mari Jose Bai. Praktika ere eskatzen du.

MARIBI Liburuarengana hurbiltzeko dauden joerak ere ezberdinak dira, ezta? Ba, batzuek entretenimentua bakarrik nahi dute, ezta? Entretenitzeko eta tarrte on bat pasatzeko. Beste batzuek zerbait gehiago bilatzen dute, beren, ez dakit, bizitzari buruzko pentsamenduak, eta, ez dakit, filosofikoak eta hortxe, batzuk poesiaren bidez. beste batzuk filo... Hurbilketak oso ezberdinak dira, eta nik uste dut, gainera.., Delibesen emazteak esaten zuen, ez da, obra batean agertzen da, liburu batek. esaten zuen berak. beste hatera eramaten zaitu, ze lehenengoan galdera batzuei erantzuna bilatzen joan zen liburuetara, eta horrek beste batera, eta horrek beste batera. Eta hor sartzen zara katea batean... Eta nik uste dut, katea horretan sartzen dena, jada ez dela ateratzen. ezta?

A.A. Eta gero, albertatibak daude, ez? Ugari eta erakargarriak, eh?

Mari Jose Musikarena.

A.A. Elektronika, informatika...

Mari Jose Momentu honetan musikarena kurioa da. Jendeak esaten du

- Liburuaren etsairik edo aipatu beharko balitz, eh, gaur egun, musika izango litzatekeela, ezta? Hau da, bereziki gazteek beren aisialdian gogoko dutena musika entzutea da. Eta orduan, oso baieztapen bitxiak ere irakurri ditut nik azkenaldi honetan, Frantzia aldean esate baterako, azkenaldi honetan kezkatuta daude fenomeno honekin. Hau da, gure etsaia orain ez da telebista. Eta orduan, nola kendu protagonismoa horri, ba hori irakurtzaletasuna pixka bat sustatuz ezta? Eta Siadecoren azken ikerketan ere Euskal Herrian ikusten da
- kultur kontsumoaren barruan telebistaren ondoren musikarena dela nagusi gazte euskaldunen artean, alfabetatuen artean.
- A.A. Hor geratzen dira, ez? Ze premia dago. ba, irakurtzeko edo zergatik irakurri behar da, ez? Azken batean horri erantzun ezinik gabiltzala ematen du, ez? Esan bai, esaten da irakurri egin behar dela, baina azken batean...
- Mari Jose Bueno, erantzun asko eman izan zaizkio tradizionalki. Batzuek plazerrarekin lotu dute. Bada, plazerra eta erotismoa lotu izan duenik ere bada. Ba, Roland Barthes eta halakoak Frantzian. Nik uste dut, ba, guztia. guzti hau egiten dugula, ba, ondo sentitzeko. edo behar edo esplikazio asko eman dakizkioke formatiboez aparte, norberaren, eh? Ez dakit.
- MARIBI Liburuetan ia den-dena dago, ezta? Edozein gai aukeratzen duzula. Edozein galdeketa baldin baduzu galdeketa bat. Ia-ia bizi oso bat dago, ezta? Eta esperientziak, beste guztien esperientzia jasotzen du. Orduan, askotan bada, ez dakit, hurbiltzea da eta...
- A.A. Plazerraz ari gara baina gogoan dut Donostian orain dela gutxi izan den Carmen Riera idazleak aipatu duena, ez? Azken batean zoriontsuagoak izateko.
- MARIBI Bai.
- Mari Jose Bai. bai. Noski.
- A.A. Badirudi irakurtzen dutenak zoriontsuagoak direla irakurtzen ez dutenak baino.
- Mari Jose Bueno. Mori nik ez dakit baieztza... baieztza daitekeen baina... asmo horrekin... hau da, bai... zoriontsu izatea eta ondo sentitzea eta zerbait...
- MARIBI Oso inportantea da ezagutzea...
- Mari Jose Oso, oso.
- P.E. Aipatu dudana, Durangoko esperientzia, ez? Gazte batek ezagutzea zuzenki pertsona hori nik uste dut pauso bat dela.
- Mari Jose Bainan Durangon gutxi daude hasteko eta... Bai, bai.
- Mari Jose Oso ezagunak.
- P.E. Bai. bai. Baina horrelako esperientziak interesanteak dira eurentzako. Baina gero bai, eh?. Nik azpimarratuko nuke irakurtzea zailagoa dela entzutea eta ikustea baino eta gainera euskaraz egiten baduzu, Nola hizkuntza bera hain normalizatua ez dagoen oraindik ere, ba, horrek

- zailtasun bat gehiago ematen du. Eta azken momentuan, esaten dugu. ba, ondo pasatzeko, eta zerbait, nire burua janzteko ere, zein da errazago?. Hau eta gero, non dago eskaintza gehiago? Ba, hemen bi badauzkat, bestean berrehun.
- MARIBI Bai, baina hiztegiarekin edo hiztegirik gabe (irakurri behar dut.
- P.E. Bai. Eta baita ere. Eta zenbat aldiz behar duzu ondoan hiztegi bat. Bai, gazteleraz ere bai, baina bueno... euskaraz askoz gehiago.
- Mari Jose Eta gero literaturaren erabilera gure artean egiten dugu horrela... helburu didaktikoa baina hizkuntza janzteko erabili izan da edo hobetzeko bakarrik. Orduan literatura dago programa askotan agertzen da, bai ertainetan baita OMO n bertan, ba, helburu horrekin. Hau da, testu azterketa linguistikoak egiten dira, erlatiboak eta kuantifikatuz eta ahaztuz lehenengo eta behin literatura dela eta literatura idazten dela ondo pasatzeko eta irakurtzeko eta literarioki irakurtzeko eta gero Fakultatetan areagotu egiten da arazoa ze euskal munduarekin lotuta dauden ikasketetan literaturaren presentzia oso urria delako.
- P.E. Egin nituen bi inkestetan batzuk... Batean adoleszenteak edo ziren ertainetakoak hamalautik hemezortzi urte bitartekoak eta bigarrenak ziren unibertsitariak, ezta? hemezortzitik hogeita bikoak. Adoleszentzian abentura eta misterioa da nagusi, bereziki misterioa, Maribik esan duen bezala... Agatha Christie, Hitchcock, baina zaletasun hori mantendu egiten da unibertsitatean ere, baina askoz ere testu konplexuagoak irakurriz, alegia, ba, irakurtzen dute, El nombre de la rosa, misteriozkoa kontsidera daitekeena baina askoz ere landuagoa dena. Eta gero badago gauza kuriozkoa, eta da, adinarekin nobela errealista eta historikoak askoz ere gogokoago dituztela besteak baino. Eta gero dago, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasun topiko/tipikoa. Hau da... Bai...
- P.E. Eta tipiko hori egia dela atera zaizu?
- Mari Jose Bai. Baina horrek ez du esan nahi, alegia, bai, emakumezkoek badirudi gehiago jotzen dugula nobela intimista, esistentzialistak eta horrelakoak irakurtzera eta gizonezkoak...
- P.E. Baina gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago irakurtzen du.
- Mari Jose Bai, hau da. Emakumezkoek gehiago irakurtzen dute. Hori nabarmena da, bereziki hogeita lau urte arte adin horietan... gehiengo emakume... bai nabarmen nagusi dira, ezta? Baina eta badago zaletasun ezberdintasuna: gehiago jotzen dute beraiek, neskak, ba hori, nobela intimistetara eta mutilek ekintza nobeletara. Baina hori ez dagokio planteamentu, horrela, berez, emakumeek jotzen dugula sentimentu edo intimismora gehiago. Rolak, gizarte-rolak dauka zerikusia. Emakumea gero eta irakurtzaleagoa denean eta gero eta parte edo... protagonismo gehiago daukanean gizartean bere irakurketa-gustuak gehiago hurbiltzen dira gizonezkoengana. Hau da, lan egiten duten emakumeak,

- formakuntza daukatenak eta irakurtzen dituzte nobela esistentzialistak, intimistak baina baita ere abenturazkoak. Hurbildu egiten dira. Orduan, gizarte-rol batekin lotuta dago, ez berezko zaletasun batekin, eh? Eta hori bai dela guztiz adierazgarria. Emakume batzuk, Maribi, liburuaren itxurari garrantzi gehiago ematen zaio... gero eta gehiago edo...
- MARIBI Bai, gero eta gehiago, ba... bueno, badira batzuk, eh, totxoak edo lodiak nahi dituztenak, baina denbora gutxi dagoenez, ba, gero eta gehiago begiratzen zaio lodia den, mehea den, letra handia duen, ez duen, ze tipoko kolekziokoa den. Askotan ondo pasatzearekin lotua dagoen zera bat da, eh? Erraz irakurtzekoa, zeren liburu lodi bat hartzen baduzu, ba, bi ordu behar dituzu hasteko, ezta?
- Mari Jose Hor Estatu Batuetan izan zen kurioa El mundo de Sofía idatzi... Jostein Gaarder...
- MARIBI Bai, hori fenomeno bat...
- Mari Jose Hori fenomeno bat. Baina bigarren liburua... nola du izena bigarrenak? Eh...
- MARIBI Ez dakit zer del solitario.
- Mari Jose Bai- Atera zenean ikusten denez amerikarrei ez zitzaien gustatu formatoa, Eta orduan oso gutxi saldu zen.
- MARIBI Zeligzan protagonista guztiz... hor zegoen traumatuta Moby Dick ez zuelako irakurri. Horrelako gauzak gaur egun ere gertatzen dira. Hau da, pekatu kontsideratzen da zenbait gauza, zenbait taldetan, ez irakurri izana. Eta hori niri ikasleen... Bueno, nire inkestetan islatu zait. Hau da, nik ez dut irakurri liburu hori baina esan didate pekatu bat dela ez irakurri izana, ze irakurri egin behar da. Eta horrela ez goaz inora. Hor Pénac-ek esan zuen. 92an Frantzian, dekalogo bat egin zuen, eta lehenengo eskubidea zen ez irakurtzeko eskubidea. Hau da, eh...
- MARIBI Uste duzu inportantea dela liburuaren taktoa?
- Mari Jose Bai.
- MARIBI Liburua ukitzea, irekitzea.
- P.E. Ez naiz zuri propaganda egiten ari, eh? Eske, hala ikusten dut.
- MARIBI Ez, ez, ez, ez. Hala da. Lehenengo orria irakurri. Konbentzitzen bazaitu Lehenengo orriak hortxe nonbait ibiliko da gainontzekoa ere...
- P.E. Ze irudi dauden liburuetan eta momentu honetan argitaletxeek lan handia egin dute eta orduan ematen den itxura oso ona izaten da normalean. Irudien garrantzia ere handia dela, segun ze adinetan ...
- MARIBI Bai, ukitu, eta...
- Mari Jose Ukitu...
- MARIBI Oso gauza...
- A.A. Bai, ikusentzuleok, hontantxe utzi behar ditugu gure kontuak. Durangoko liburu-azkoka aitzakiatzat hartuta, hementxe izan gara irakurketari eta irakurtzaletasunari buruzko gogoetan. Probetxuzko gertatu bazaizkizu,

ba, eskerrak gure hirukoteari: Mari Jose Olaziregi, Maribi Legarra eta Peio Ellakuriari . Eta kitto, besterik ez. Adiorik gabe, gaur zortzi arte. Ondo izan.

BIBLIOGRAFIA

- Aranguren, Lurdes eta Urdangarin, Josean. Normalkuntza Saioak administrazio publikoan. Hiznet 02/03.
- Batzuk. Estilo liburua. Egunkaria.2001.
- Batzuk. Administrazio-lanerako oinarrizko euskara-ikastaroa. IVAP/ HAEE: 1990.
- Batzuk. Gurtegiak. HABE. Donostia. 1984.
- Batzuk. Galdezka. Euskarazka zalantzei erantzunez. IVAP/HAEE. 2003.
- Batzuk. Argiro. Idazteko proposamenak eta ariketak. IVAP/HAEE. 1997.
- Batzuk. Administrazioa euskaraz. IVAP/HAEE. 17. Zenbakia. 1997.
- Batzuk. Administrazioa euskaraz. IVAP/HAEE. 15. Zenbakia. 1997.
- Batzuk. Administrazioa euskaraz. IVAP/HAEE. 19. Zenbakia. 1998.
- Batzuk. Administrazioa euskaraz. IVAP/HAEE. 14. Zenbakia. 1996.
- Eizagirre, Jexuk. Administrazio-idazkaria. IVAP/HAEE.2003.
- Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Euskararen jarraipena II: Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta 1996. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.
- Ezeia, Joseba. Esalditik testura. Gaiak. Donostia. 1995.
- HABE. Barrenet . 4. Ikastunitatea. Donostia. 1999.
- HABE. Udal administrazioa. Donostia. 1998.
- IVAP/HAEE. Hizkuntza Eskakizunetako azterketak. Gasteiz. 1995.
- Fishman Joshua, A. El nuevo orden lingüístico, UOC. 2.001.
- Martinez, Zesar; Jausoro, Nekane; Berrio-Otxoa, Kontxesi eta Altuna, Olatz. Ikerta soziolinguistikorako hainbat hurbilpen teoriko. Hiznet 02/03.
- Serafini, Maria Teresa. ¿ Cómo se escribe?. Paidós. Bartzelona. 2001.
- Zubimendi, Jose Ramon. Udal-agiak Euskal Herriko udaletxeetan gehien erabiltzen diren 80 agiriren ereduak. IVAP/HAEE. 1999.